

# **Euskara eta gazteak**

**Lasarte-Orian (II)**

Hizkuntzazko jokaerak

Pello Jauregi Etxaniz

# Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian (II)

---


---

## Hizkuntzazko jokaerak

---

Pello Jauregi Etxaniz

---



LASARTE-ORIAKO UDALA

Egilea:

Pello Jauregi Etxaniz.

Edukiaren zuzentzailea:

Iñaki Arruti Landa.

Idazkeraren zuzentzailea:

Joan Ignazio Bereziartua Iraola.

Dokumentuaren itxuratzzaileak eta maketatzzaileak:

Joan Ignazio Bereziartua Iraola eta Iñaki Arruti Landa.

Argitaratzailea:

Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea.

© Lasarte-Oriako Udala, 2003.

Azalaren diseinatzailea eta edizioaren paratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea – e3 Komunikazio-Zerbitzuak

Inprimatzailea:

Arteder

Legezko gordailua:

SS-0670/03

Lasarte-Orian, 2003ko maiatzean.

# Aurkibidea

HITZAURREA .....	5
SARRERA .....	9
I. ATALA: ZERTAN ALDATU DA GAZTEEN HIZKUNTZAZKO EGOERA	
HAMAR URTEOTAN? .....	15
• Sarrera .....	16
• 1. ondorioa, gazteen kopuruaz .....	19
• 2. ondorioa, gainerako datu soziodemografikoez .....	20
• 3. ondorioa, hizkuntzak ikasteko adinaz .....	21
• 4. ondorioa, euskaraz hitz egiteko gaitasunaz .....	22
• 5. ondorioa, euskaraz ulertzeko gaitasunaz .....	23
• 6. ondorioa, euskaraz irakurtzeko eta idazteko gaitasunaz .....	24
• 7. ondorioa, hizkuntzen erabileraz .....	25
• 8. ondorioa, jarreraz .....	26
• 9. ondorioa, euskararen egoerari buruzko iritziaz .....	27
• 10. ondorioa, etxeko hizkuntzazko egoeraz .....	28
• 11. ondorioa, lagunarteko hizkuntzazko egoeraz .....	29
• 12. ondorioa, eskolako ikastereduez .....	29
• 13. ondorioa, 13-14 urteko gazteez .....	31
• Ikuspegi orokorra .....	33
• Datuen bilduma: 1992ko eta 2002ko datuen konparazioa .....	35
II. ATALA: NOLAKOA DA GAZTEEN EGUNGO HIZKUNTZAZKO EGOERA? .....	53
• Sarrera .....	54
• 1. ondorioa, gaitasunaz, erabileraz eta atxikimenduaz .....	56
• 2. ondorioa, 13-14 urtekoen ezaugarriez .....	57
• 3. ondorioa, sexuen arteko konparazioaz .....	59
• 4. ondorioa, euskarazko gaitasunaren kalitateaz .....	60
• 5. ondorioa, euskara 3 urte arteko adinean jasotzeaz .....	61
• 6. ondorioa, eskolako ikastereduez .....	64
• 7. ondorioa, euskararenganako sentimenduaz .....	66
• 8. ondorioa, euskaraz egitearen sendotasunaz .....	68
• 9. ondorioa, kondizio pertsonalen eta sozialen ondorioez .....	70
• 10. ondorioa, hizkuntzak gizarteratzeko eremuen eraginaz .....	73
• 11. ondorioa, amaren eraginaz .....	77
• Datuen bilduma: 2002ko inkestako datuak .....	81

III. ATALA: GERTATZEN ARI DENARI ETA GERTA DAITEKEENARI BURUZKO	
HAUSNARKETA . . . . .	99
• Gaitasun erlatiboa . . . . .	100
• Etxea eta eskola . . . . .	102
• Lagunartea eta eskola . . . . .	103
• Gainerako harreman-sareak . . . . .	104
• Gazteak guraso izatera heltzen direnean . . . . .	106
• Etorkizunerako gakoak . . . . .	108
ERANSKINA: HITZ BATZUK IKERBIDEARI BURUZ . . . . .	109
• Sarrera . . . . .	110
• 1. hausnarketa, honelako ikerketen kualitatibotasunaz . . . . .	111
• 2. hausnarketa, 'euskalduna' kontzeptuaz . . . . .	116
• 3. hausnarketa, 'ama-hizkuntza' kontzeptuaz . . . . .	118
• 4. hausnarketa, 'lagunarte euskalduna' kontzeptuaz . . . . .	120

# **HITZAURREA**

Orain hamar urteko gure burutazioen artean ziren, besteak beste, ordu arte batez ere haurren jardun-eremuetan aritu ginela eta kondizioak sortzen ari zitzaizkigula adin-taldez jauzi egiteko eta gazteekin ere aritzeko, B ereduia Bigarren Hezkuntzaren atarian zela, irakaskuntzaz gain beste jardun-eremuei ere erreparatu behar genielako...

Adin-talde horretan aritzeko, ordea, kolektiboa bera hobeto ezagutu behar genuela ere bagenerabilen buruan, soziodemografikoki ezaugarri ezberdinak zituela, A ereduak ere pisu handia zuela, ezin zirela haurrekin eta haurrengan eragiteko genituen esku hartzeko moduak kopiatu...

Galdera, kezka eta asmo horiei bidea bilatu nahian, 1992. urtean, "Gazteak eta Euskara" gaiaren gainean ikerlan bat egiteko beka esleitu genion Joxe Mari Iraola herritarrari. Aurreikus zitekeen bezala, ez zizkigun Iraola jaunak galdera, kezka eta asmo guztiak bideratu; ez, ordea, lana eskatuta bezala egin ez zuelako, sarritan gertatu ohi zaigun gisara, baizik eta galdera, kezka eta asmo handiegiak genituelako ikerlan bakar batek argitzeko.

Emandako pausoaz, hala ere, ez dugu damurik. Aitzitik, Joxe Mari Iraolak lan bikaina egin zuen. Izan ere, Lasarte-Oriako gazteak eta gazte horiek euskararekin nolako harremana zuten jakin ahal izan genuen (1994an argitaratu genuen ikerlan hura, *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian. Hizkuntz jokaerak* izenburupean), eta, garrantzitsuagoa dena, harrezkeroztik, bide eman genien gazte horien hizkuntzazko ezaugarriak hobetzeko ekinbideei.

Ordutik hona, egin ditugu gazteen kolektibo horretan euskararen presentzia gehitzeko eta hobetzeko ahaleginak. Ahaleginak egin ditugu irakaskuntzaren jardun-esparruan (*OHOko "B" ereduia ertainetan? I eta II* ikerlanekin, Bigarren Hezkuntzako ikastereduak hobetzeko saiakerekin, ikastetxeek barrutik egindako lanekin, *Ulibarri* programarekin, *Maita nazazu gutxiago eta goza nazazu gehiago* motibazioko ikastaroekin, *Lagunarteko hizkerarekin jolasean* programarekin...); orobat egin ditugu ahalegin batzuk bai komunikabideen jardun-eremuan (herriko *Txintxarri* aldizkariaren hedapena eta kontsumoa sustatzekoak, gazteek berek eta berentzat egindako *Irakutrezin* aldizkaria, *Euskarazko produktuen katalogoa*...) eta bai aisiako eta lagunarteko jardun-eremuetan ere (eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko *Kalea Maixu I* programa, *Kirola euskaraz* programa, monitore eta entrenatzaile aritzeko begirale-poltsak, lagunartean euskaraz aritzeko ohiturak sustatzeko *Kuadrillategi* programa...).

Eta egoera aldatu al da? Ongi egin al ditugu egindakoak?

Horiek izan dira gure burutazio berriak hamar urte geroago. Eta, berriz ere, galdera, kezka eta asmo horiei bidea bilatu nahian, 1992. urtean egin genuen bezala, "Gazteak eta euskara" gaiaren gainean ikerlan berri bat egiteko beka esleitu genion iaz, hamar urte geroago, Kuadrillategi elkarteari. Hain zuzen ere, elkarte horren izenean egin

---

du lana Pello Jauregi euskaltzale eta EHUko irakasleak, Filosofian eta Hezkuntzako Zientzietan doktoratua denak.

Pello ezagutzen duenak badaki hark ez dituela lanak erdizka egiten, eta halaxe gertatu da oraingo honetan ere. Lan bikaina egin du, bikainegia ziurrenik, udalerrri bateko ikerlan xume bati eska dakiokkeenaren proportziotik begiratuta bederen.

Oinarrizko lana, bekari eskatu behar zitzaiona, orain hamar urteko ikerlana errepikatzea eta alderatzea zen. Hori egin da, eta emaitza nagusiak liburu honetan bilduak daude. Datu eta zenbaki gehiago ere badira, eta kontsultatu nahi dituenak eskatu besterik ez du.

Lanari bikaintasuna eman dion ahalegina, ordea, zenbaki eta datu horietatik guztietatik ondorio argiak eta ulerterrazak ateratzea izan da. Antzeko lanetan aritutakoak ondotxo daki zenbakiei esanahia topatzea izan ohi dela lanik zailenetakoa, eta hori gutxitan bezala egin delakoan gaude. Egin, irakurleak zenbakietara ia hurbildu gabe ulertzeko moduan egin ere, liburu honetako bi atal nagusiak (*Zertan aldatu da hizkuntzazko egoera hamar urteotan?* eta *Nolako a da egungo hizkuntzazko egoera?*) bina azpiataletan bereiziz: ondorioak labur eta argi, hitz lauz bilduta lehendabizi, eta horien jatorriaren zenbakiak tauletan bilduak emanez ondoren.

Ahalegin gehigarri bat ere eskatu diogu, ordea, Pellori, eta, nola ez, estutu ditu garunak eta josi ditu han-hemenka azaldutako hari-muturrak, *Gertatzen ari denaz eta gerta daitekeenaz hausnarketa* atalean.

Hortik aurrera, irakurleari dagokio liburuan murgiltzea, eta Lasarte-Oriako udalerrian euskara indarberritzeko lan egiten dugunoi dagokigu ondorio horietaz hausnartzea eta ekinbideetan asmatzea, hamar urte barru euskarak eta euskal hiztunen komunitateak bizi-indar handiagoa eta hobeia izan dezan.

Hala biz.

*Iñaki Arruti Landa*



**SARRERA**

“Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian” ikerlana Lasarte-Oriako Udalaren Euskarako Zerbitzuaren ekimena izan da, eta Pello Jauregik burutu du, Kuadrilategi Kultura Elkartearen izenean.

Ikerketa 2002ko urtarriletik abendura bitartean egin dugu, bi fase ezberdinetan:

- 1) Lehenengoan, galdeketa egin genion lagin adierazgarri bati.
- 2) Bigarreanean, lagin murriz bat hartu, eta subjektuen giza harreman errealetan hizkuntzazko jokaerak nolakoak ziren zenbatu genuen.

Lehenengo fasean egin genuen, esan bezala, galdeketa. Laginak 167 gazte hartu zituen bere baitan, eta zoriz hautatuak izan ziren, erroldako datuetan oinarrituta. Ikertzeko unibertsoak Lasarte-Oriako 13 eta 24 urte bitarteko gazteak hartzen zituen; alegia, 2.512 gazte guztira. Lagina geruzazko eran osatu genuen, hiru adin-taldetan jarri nahi baikenuen arreta berezia; hots, 13-14, 15-18 eta 19-24 urte bitartekoak. Laginaren konfiantza-tartea %95,5koa izan da, eta errore-tartea %7koa.

	Unibertsoa	Lagina
13-14 urtekoak	262	20
15-18 urtekoak	636	48
19-24 urtekoak	1.614	99
Guztira	2.512	167

Galdetzaile-talde batek egin zituen galdeketak, gazteekin hitzordua zehaztu ondoren.

Galdeketak emaniko datuez baliaturik, gazteak bost hiztun-tipotan sailkatzeko modua izan genuen. Tipologiak, funtsean, bi irizpide hartzen zituen kontuan. Batetik, gazteen amaren hizkuntza, eta, bestetik, gazteen hizkuntzazko jokaera, lagun euskaldunekin jardutean. Bazen uste nagusi bat tipologia horren atzean, eta zen ezen gazteak txikitan amarengandik jasotako hizkuntzazko jokaera islatzen eta erreproduzitzen duela gaztetan kalean beste euskaldunekin denean. Laburrago esanda, etxean zer jaso, kalean hori eman. Bagenekien ustezko fenomeno nagusi honen ondoan bestelako kasuak ere izango zirela, eta, horregatik, guztira, bosteko tipologia egin genuen bi, aldagaiak nahastuz. Hain zuzen ere, honako bost hauek:

- 1. tipoa: ama euskalduna izanik, lagun euskaldunekin euskaraz aritzen direnak.
- 2. tipoa: ama euskalduna izanik, lagun euskaldunekin gaztelaniaz aritzen direnak.
- 3. tipoa: ama erdalduna izanik, lagun euskaldunekin euskaraz aritzen direnak.
- 4. tipoa: ama erdalduna eta gaztea gaitasunez euskalduna izanik, lagun euskaldunekin erdaraz aritzen direnak.
- 5. tipoa: ama erdalduna eta gaztea gaitasunez erdalduna izanik, lagun euskaldunekin erdaraz aritzen direnak.

Tipologia horretan oin harturik ekin genion ikerketaren bigarren faseari. “Hizkuntzazko jokaerei buruzko ikerketa” izendatu genuen, “galdeketatik” bereizteko. Bi gazte aukeratu genituen tipo bakoitzeko, zoriz. Beraz, hamar lagun guztira.

Jakin nahi genuen lagun horiek nola jokatzten zuten, hizkuntzari dagokionez, eguneroko harremanetan. Galdeketan ere galdetu zitzaien horri buruz, baina, oraingoan, informazioa beste bide batetik eskuratu nahi genuen; hots, beste ikerbide bat erabilita. Ikerbide berriak subjektuen harreman errealak jaso nahi zituen, horiek gertatzen ziren unean bertan. Hortaz, harreman pertsonal eta linguistikoen erregistrotzat jo zitekeen. Hori guztia egiteko, sakelako telefono banaz hornitu genituen ikertuak. Ikerlariok ustekabean eginiko telefono-deiei erantzunez, ikertuek une horretakoxe hizkuntzazko jarduera behar zuten erregistratu (telefono-hotsa entzun bezain laster telefonozko mezua bidaliz egiten zuten hori).

Lagun bakoitzak 30en bat dei jaso zituen astebeteko epean: 2002ko azaroaren 18tik 24ra bitartean, zehazki esanda. Haien erdiak astegunetan, arratsaldeko 6etatik gaueko 10etara, eta beste erdiak asteburuan, arratsaldeko 4etatik gaueko 10etara. Ordutegi horren bidez, garbi asko, kaleko harreman ez formalak jaso nahi genituen, lagunartekoak bereziki.

Telefonozko dei bakoitzeko erregistro bat egiten zuten ikertuek, eta honelako informazioa eman zuten:

***Zertan ari zara? Zein hizkuntzatan?***

Zertan?	Nola?
1.- Pentsatzen	1.- Euskaraz
2.- Hizketan	2.- Gaztelaniaz
3.- Entzuten	3.- Beste batean
4.- Irakurtzen	
5.- Idazten	

***Hizketan ari baldin bazara, norekin?***

Norekin?	Bestea euskalduna da?
1.- Lagun batekin	1.- Bai
2.- Senide batekin	2.- Ez
3.- Ezagun batekin	3.- Ez dakit
4.- Arrotz batekin	

***Entzuten ari baldin bazara, zer?***

Zer?
1.- Telebista
2.- Irratia

***Irakurtzen ari baldin bazara, zer?***

Zer?
1.- Prentsa
2.- Liburua
3.- Aldizkaria
4.- Web orria

***Idazten ari baldin bazara, zer?***

Zer?
1.- idazki motza
2.- idazki luzea
3.- idazki formala

“Hizkuntzazko jokaerei buruzko ikerketak” ez du irakurketa estatistikorik egiteko aukera ematen. Hark ematekoa bestelakoa da: irizpide kualitatiboak emango dizkigu, eta horiek erabili ahaliko ditugu gero datu estatistikoak hobeto ulertzeko edo egokiago interpretatzeko.

Galdeketaren emaitzak, bestalde, interpretatu ez ezik, alderatu ere egingo ditugu 1992. urtean Joxemari Iraolak eginiko galdeketarekin. Azpimarratu behar da galdeketa hura oraingo galdeketaren sorburu eta erreferentzia zuzena dela, hark aztertu baitzuen lehenengoz Lasarte-Oriako 13-24 urte bitarteko gazteen hizkuntzazko egoera. Hortaz, hamar urte iraganik, bi galdeketetako emaitzak alderatu nahi genituen, euskararen bilakaeraz jabetzeko. Horrexegatik, hain zuzen ere, emaitzak ahalik eta zehatzen alderatu nahi genituelako, bere horretan utzi ditugu, ukitu gabe, orduko ikerketaren kontu ugari.

Liburuxkaren egiturari dagokionez, jakizu, irakurle, ezen zuri ahalik eta irakurterrazen eta interesgarrien gertatzea izan dugula etengabe gogoan. Horrek eraman gaitu batzuetan alderdi didaktikora makurtzera, azalpen tekniko latzen kaltetan. Baina, hala eta guztiz ere, zaindu ditugu, ongi zaindu ere, edukien zehaztasuna eta oinarri zientifikoa.

Testua bi atal nagusitan banatu dugu, eta galdera bana dute abiapuntu:

- 1) Zer aldatu da hamar urteotan hizkuntzazko egoerari dagokionez?
- 2) Nolakoa da egungo egoera?

Bukaerako beste bi atalean, hainbat hausnarketa jaso ditugu: lehenbizikoan, gertatzen ari denari eta gerta daitekeenari buruzkoak, eta, bigarrenean, ikerbideari berari buruzkoak.

Ondorio nagusiak agertuz hasiko dugu atal bakoitza. Hori ez da ohikoa, badakigu. Baina aitor dezagun zein latza den honelako idazlanetan barrera abiatzen den irakurle bulartsuak, ondorioak jakitera iritsi aurretik, hamaika orrialde, hitz-andana eta zenbaki bihurritu mordoxka “irentsi” behar izatea. Eta sikiera ondorioen mamiak justifikatu balu aurretiko lan mardula, gaitzerdi! Baina, behin baino gehiagotan, ondorioen begi-bistakotasuna ikusirik, halako justifikazioa aurkitzea zail da benetan.

Ondorioak aurretik emanez eta testua haien inguruan taxutuz, bi helburu bete nahi izan ditut, zeintzuk baitira, batetik, irakurleak izan dezala lehenengo unetik lanaren ikuspegi orokorra eta horrela ez dadila galdurik senti zenbakizko baso berezi honetan, eta, bestetik, irakurketa zehatza egin nahi ote duen eta zein ataletan egin nahi ote duen erabakitzeko irizpideak izan ditzala.

Ondorio nagusiak zerrendatuz zabalduko dugu atal bakoitza. Ondoren, ondorioak banan-banan hartuta, horiek justifikatzeko behar diren datuak eta azalpenak emango ditugu. Azkenik, datu-taulak erantsiko ditugu, irakurleak berak, hala nahi izanez gero, bere baitako azterketa egin dezan.

Eta, besterik gabe, badugu hasteko garaia.

**I. ATALA: ZERTAN ALDATU DA  
GAZTEEN HIZKUNTZAZKO EGOERA  
HAMAR URTEOTAN?**

---

## Sarrera

### Ondorio nagusiak

---

Agindu bezala, ondorio nagusiak agertuz eta azalduz ekingo diogu honi, baina, aurretik, sarreratxo bat egin behar dut, ezinbestez, metodologiari buruz.

Zer da ondorio bat? Erantzunetako bat: datu edota zenbakietan oinarritzen den ideia-multzoa. Beraz, datu-zenbakiak ditugu batean, eta ideia-kontzeptuak bestean. Datu-zenbaki hutsak emateak, ordea, ez du, berez, ezer esaten. Zein da, orduan, kontua? Datuok interpretatzea. Zenbakiak kontzeptu bihurtzea.

Zenbat da %30? Gutxi? Nabarmen? Asko? Zer da %40tik 46ra pasatzea? Aldaketa txikia? Aldaketa nabarmena? Hizkuntza matematikoan, eta horixe da estatistikarena, 46ko puntuazioa 40koa baino gehiago da, eta, beraz, 6 puntuko hazkundera dago. Baina guk zientzia humano eta sozialen ikusmoldetik egiten dugu interpretazioa, eta, beraz, honako galdera hau egin behar diegu geure buruei: 6 puntuko hazkundera adierazten al du benetan fenomenoaren aldaketa esanguratsurik?

Gure uste metodologikoa da ezen estatistikazko datuak ezin direla era matematiko huts, zorrotz eta zehatzean interpretatu, baizik eta era zabalean. Adibide bat: gazteen %43k euskararen aldeko jarrera dutela dio datuak. Horrek, zalantzarik gabe, zerbait adierazten du, fenomeno bat bistarazten du, baina fenomenoaren zenbaki zehatza ez da 43, baizik eta horren inguruko tarte zabaltxeagoa, eta, hala, 39ko eta 49ko puntuazioak ere, seguru asko, fenomeno bera adieraziko digute.

Horregatik, gure ustez, tarte zabalak finkatu behar dira datuok interpretatzeko, gizarteko fenomeno errealei antzemateko, matematikazko irakurketa hertsia eta desegokiek sorturiko fikziozko fenomenoak alboratzeko. Guk, gure interpretazioa egiterakoan, ehuneko 15 puntuko tarte hartu dugu esan ahal izateko ezen bi puntuazioren artean alde nabarmena dagoela edo aldaketa gertatu dela; alegia, fenomeno bat eta bestea desberdinak direla. Zorrotza da eskakizuna, badakigu, bai eta zenbaitetan benetako fenomeno batzuk ezkutuan geldituko direla ere, baina etekinak galerak baino handiagoak direla uste dugu, ezen fenomeno sozial eta humanoen irudi errealagoa eskuratuko dugu hala jokatzu gero.

Aurreko irizpideari helduta atera ditugu orain irakurriko dituzun ondorioak. Gure irakurketa da. Horretaz zalantzarik ez. Baina, baldin eta gure irizpidearekin bat ez bazatoz, orduan, irakurle, ez egin dudarik zeure baitako irakurketa egiteko. Horretarako eta aurkituko dituzu, atalaren bukaeran, daturik esanguratsuenak biltzen dituzten taula guztiak.

Beraz, eta gehiago luzatu gabe, hona hemen ondorio nagusiak, zerrenda eginik:

**A) Datu soziodemografikoei dagokienez:**

- 1) Izugarri jaitsi da gazteen kopurua.
- 2) Gainerako datu soziodemografikoetan, banaketa berdintsua gertatzen da 1992ko eta 2002ko galdeketetan. Beraz, bietan berdintsuak dira sexuaren araberrako banaketa, gazteen eta gurasoen jaiolekua eta gazteen eguneroko betebeharr nagusiak.

**B) Hizkuntzazko gaitasunari dagokionez:**

- 3) Gaztelania ikasitako adina berdintsua da bietan. Euskara ikasitako adina, ordea, izugarri lehenagotu da.
- 4) Euskaraz hitz egiteko gaitasuna dela eta, dexente handitu da gazte euskaldunen kopurua. Hala ere, gaitasunaren kalitateak desoreka azpimarragarriak ditu: hazkundera, bereziki, "nahiko ongi mintzatu" kategoriarri dagokionez agertzen zaigu; hazkundera txikia da, ordea, "oso ongi mintzatu" kategoriarri.
- 5) Euskaraz "oso ongi" eta "nahiko ongi" ulertzen duten gazteen kopurua nabarmen handitu da. Lasarte-Oriako gazte gehienak daude kategoriarri horren barruan.
- 6) Euskarazko alfabetatzeak aurrera egin du, eta, ondorioz, gazte gehienak ditugu euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai.

**C) Hizkuntzazko jokaerari dagokionez:**

- 7) Hizkuntza bakarria erabiltzeko joera nabarmen sendotu da, eta hori bi hizkuntzak tartekatzen zituztenen kaltean gertatu da. Horren ildotik, euskara baino erabiltzen ez duten gazteen kopurua zertxobait handitu da. Nabarmenago handitu da, hala ere, gaztelania baino erabiltzen ez duten gazteen multzoa.

**D) Hizkuntzazko jarrerari dagokionez:**

- 8) Euskaraz jakitearen aldeko jarrerak berdintsu jarraitzen duen bitartean, epeldu egin da euskara erabiltzearen aldekoa.
- 9) Euskararen egoera egun eta etorkizunean berdintsu hautematen dute gazteek bietan.

**E) Harreman-sareei dagokienez:**

- 10) Etxean duten hizkuntzazko egoera berdintsua da bietan, gaitasunean bezala erabileran ere. Salbuespen bakarra da euskarazko gaitasunak nabarmen egin duela gora anai-arreben artean.
- 11) Euskaldun hutsezko lagunartek gora oso nabarmen egin duten arren, erabileran emaitza berdintsuak ditugu bietan.
- 12) Izugarri hazi da Lehen Hezkuntza D eta B ereduetan egin duten gazteen kopurua.

**F) Salbuespenak:**

- 13) Hizkuntzazko irudi horretatik kanpo dagoen salbuespen bakarra 13-14 urtekoen azpitaldea da, horiek nabarmenki hobea baitute orain etxeko hizkuntzazko egoera orduan baino, bai amaren, aitaren eta anai-arreben euskarazko gaitasunaren aldetik, bai eta horiekin guztiekin erakusten duten euskarazko erabileraren aldetik ere. Gauza bera esan genezake lagunartean erakusten duten hizkuntzazko jokaera dela eta, izugarri hazi baitute lagunekin euskara hutsez aritzeko joera.

---

## **1. ondorioa, gazteen kopuruaz**

### **Izugarri jaitsi da gazteen kopurua.**

---

Baldin eta 4.400 gazte baziren 13 eta 24 urte bitartekoak 1992. urtean, 2.512 gazte baino ez ziren 2002an. Ia 2.000 gazte gutxiago hamar urteko epean! Izugarria!

Ez hori bakarrik. Gazte multzoa “zahartu” egin zaigula ere esan behar da. Hona hemen datua: 19-24 urtekoen azpitaldekoek handitu egin dute beren presentzia gazteen artean; beste bi adin-tartekoek kaltetan, noski. Adinezko beste bi azpitaldeen presentzia urritu egin da, baina 15-18 urtekoen multzoarena 13-14 urtekoen multzoarena baino gehiago.

## **2. ondorioa, gainerako datu soziodemografikoez**

**Gainerako datu soziodemografikoetan, banaketa berdintsua ateratzen da 1992ko eta 2002ko galdeketetan. Beraz, bieran berdintsuak dira sexuaren arabera banaketa, gazteen eta gurasoen jaiolekua eta gazteen eguneroko betebeharrak nagusiak.**

---

Horren arabera, honako hau esan dezakegu irudi orokor gisa:

- 1) Emakumezkoen kopurua gizonenak baino gutxiago da.
- 2) Gazte gehien-gehienak Gipuzkoako lurraldean jaiotakoak dira.
- 3) Haien gurasoak, bai ama eta bai aita, Euskal Herritik kanpo jaiotakoak gehiago dira Euskal Herrian jaiotakoak baino. Aldea oso txikia da 1992ko eta 2002ko egoeren artean.
- 4) Gazteen betebeharrak nagusiak ikastea da nabarmen.

---

### **3. ondorioa, hizkuntzak ikasteko adinaz**

**Gaztelania ikasitako adina berdintsua da bietan. Euskara ikasitako adina, ordea, izugarri lehenagotu da.**

---

Gaztelaniaz jabetzeak eta jasotzeak kale egin gabe jarraitzen du. Hau da, ez da ale bat ere gaztelania ikasi gabe gelditzen denik. Horietako gehienek, gainera –hots, %85 inguruk–, 0-3 urte bitarteko adinean ikasi zuten. Oraingo egoera eta orain hamar urtekoa berdintsuak dira.

Euskarak, ordea, atal honi dagokionez, sekulako aurrerapena egin du. 1992. urtean, handia zen euskara ikasi gabekoen kopurua: %43,6. Hamar urteren bueltan, %3ra jaitsi da portzentajea. Sekulakoa! Erdaldun elebakarrak ia desagertu egin dira. Elebiduntzeko prozesuak gogotik egin du aurrera. Bestalde, euskara ikasitako adina izugarri lehenagotu da. Horrela, bada, 1992. urtean, %26,2k baino ez zuten ikasi euskara 0 eta 3 urte bitarteko adinean; 2002. urtean, berriz, %51,5eraino hazi zaigu kategoria hori bera.

---

## **4. ondorioa, euskaraz hitz egiteko gaitasunaz**

**Euskaraz hitz egiteko gaitasuna dela eta, dexente handitu da gazte euskaldunen kopurua. Hala ere, gaitasunaren kalitateak desoreka azpimarragarriak ditu, ezen hazkundera, bereziki, “nahiko ongi mintzatzen da” kategoriari dagokionez agertzen zaigu. Ordea, hazkundera txikia da “oso ongi mintzatzen da” kategorian.**

---

Oro har, begi-bistakoa da euskalduntzeko prosezua azkartzea. Erdarazko elebakartasunaren muturra nabarmen hustuz doan neurrian, guztiz ikusgarria da euskalduntzearen eta elebiduntzearen aurrerapausoa. Horren ondorioz, nabarmen handitu da euskaldunen kopurua gazteen artean; hots, %44tik %63,4ra pasatu gara hamar urtean. Hala ere, euskaldun horien gaitasuna ez da berdina kasu guztietan: batzuk “oso ongi” mintzatzen dira; beste batzuek, berriz, “nahiko ongi” baino ez dute egiten. Eta, hazi, azken multzoa (“nahiko ongi” mintzatzen direnena, alegia) hazi da bereziki. Horregatik, komeni da honako ñabardura hauek egitea:

- 1) Erdarazko elebakartasunaren muturra hustuz doa: %28,7tik %11,4ra pasatu gara hamar urteotan, baldin eta kategoria honetan sartzen baditugu euskaraz egiteko batere gaitasunik ez dutenak eta hitz batzuk besterik ez dakitenak.
- 2) Euskalduntzearen emaitzarik nabarmena “euskaraz nahiko ongi mintzatzen da” deituriko kategorian igartzen da. Kontu egin %13,3tik %30,5era pasatu gara epe horretan.
- 3) Nahiko berdintsua da, ordea, “euskaraz oso ongi mintzatzen da” kategoria: %29,7 zeuden horretan kokatuak 1992. urtean, eta %32,9 hamar urte geroago.

---

## **5. ondorioa, euskaraz ulertzeko gaitasunaz**

**Euskara “oso ongi” eta “nahiko ongi” ulertzen duten gazteen kopurua nabarmen handitu da. Lasarte-Oriako gazte gehienak daude kategoria horren barruan.**

---

Lasarte-Oriako gazteen %80,8k ulertzen dute euskara “oso ongi” edota “nahiko ongi” 2002. urtean. Aldaketa nabarmena gertatu da hamar urteotan, zeren 1992. urtean %61,6koa baitzen euskara “oso ongi” edo “nahiko ongi” ulertzen zutenen portzentajea.

Kalitateari begiratuz gero, mintzamenean ez bezala, entzumenean “oso ongi” ulertzen dutenen kopurua gehiago hazi da (%11,2) “nahiko ongi” ulertzen dutenena baino (%8).

Euskara zailtasunik gabe ulertzeko gaitasuna lortzeari “euskalduntze pasiboa” esaten badiogu, orduan, baieza daiteke egun Lasarte-Orian gazte gehien-gehienek arrakastaz burutu dutela prozesu pasibo hori. Hau da: hamar gaztetatik zortzik ongi ulertuko dutela euskaraz zuzentzen zaizkielarik.

## **6. ondorioa, euskaraz irakurtzeko eta idazteko gaitasunaz**

**Euskarazko alfabetatzeak aurrera egin du, eta, ondorioz, gazte gehienak ditugu euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai.**

---

Alfabetatzeari lotutako hizkuntzazko gaitasunek ere –hots, irakurmenak eta idazmenak– aurrera egin dute, nabarmen, euskarari dagokionez.

Egun, gazteetatik %78,4 gauza dira euskaraz “oso ongi” edota “nahiko ongi” irakurtzeko. 1992. urtean, berriz, portzentajea %62,6koa zen.

Era berean, euskaraz idazteko garaian, gazteetatik %70,6k “oso ongi” edota “nahiko ongi” egiten dute. 1992. urtean, ordea, %57,5 zeuden egoera horretan.

Kalitatearen azterketa egitean, antzekotasun handiak igartzen ditugu ahozko gaitasunekin. Horrela, ulermenean bezala irakurmenean ere (gogoan izan biak direla hizkuntzazko trebetasun pasiboak) hazkundea kalitatezkoa izan da, gehiago hazi baitira “oso ongi” kategoriakoak “nahiko ongi”koak baino. Bestalde, mintzamenean bezala idazmenean ere (eta horiek biak hizkuntzazko trebetasun aktiboak ditugu) traketsagoa izan dugu hazkundearen kalitatea, gehiago hazi baitira “nahiko ongi” kategoriakoak “oso ongi”koak baino.

---

## **7. ondorioa, hizkuntzen erabileraz**

**Hizkuntza bakarra erabiltzeko joera nabarmen sendotu da, eta hori bi hizkuntzak tartekatzen zituztenen kaltean gertatu da. Horren ildotik, euskara baizik erabiltzen ez duten gazteen kopurua zertxobait handitu da. Nabarmenago handitu da, hala ere, gaztelania baizik erabiltzen ez duten gazteen multzoa.**

---

Argitu beharra dago, ezer baino lehenago, ezen guk, hemen, gazteek lagun euskaldunekin duten hizkuntzazko jokaeratik hartu dugula euskarazko erabileraren neurria.

Aurrekoa esan ondoren, orobat baieza dezakegu hizkuntzazko jokaera muturretaratuz joan dela, euskarazko muturrera batetik, baina bereziki erdarazko muturrera bestetik. Hori argi ikusten da datuetara ekarririk, ezen euskaraz baizik egiten ez duten gazteen kopurua ehuneko 7,7 puntutan hazi da; hots, %12,7tik %20,4ra pasatu da. Baina hori baino nabarmenagoa izan da gaztelaniaren muturrera lerrokatu direnen ehunekoa. Hala, gaztelaniaz baizik egiten ez duten gazteen kopurua ehuneko 15,8 puntu hazi da; hots, %25,5etik %41,3ra pasatu da.

Eta, muturreko jokaerak indartu badira, tarteko jokaeren kaltetan izan da. Tarteko jokaerak diogunean, lagun euskaldunekiko harremanetan batzuetan euskara eta beste batzuetan gaztelania proportzio ezberdinetan erabiltzen dituztenen jokaerez ari gara.

Beste irakurketa bat ere egin daiteke, alde batean bilduz euskara beti edo gehienetan erabiltzen dutenak ("euskararako joera" esango genioke horri) eta beste aldean gaztelaniaz beti edo gehienetan egiten dutenak ("gaztelaniarako joera" izendatuz). Bada, euskararako joera zerbait indartu da hamar urteotan, ehuneko 6,5 puntu indartu baita (%23,5etik %30ra). Era berean, gaztelaniarako joera ere ehuneko 4,5 puntu indartu da (%53tik %57,54ra).

## **8. ondorioa, jarreraz**

**Euskara jakitearen aldeko jarrerak berdintsu jarraitzen duen bitartean, epeldu egin da euskara erabiltzearen aldekoa.**

---

Euskal Herrian euskaraz jende guztiak jakin beharko lukeelako ustea oso zabaldua zegoen 1992ko galdeketan. Baita 2002koan ere. Kopurua apenas aldatu den: %59,3tik %58,6ra pasatu da uste horrekin ados edo oso ados zeudenen portzentajea.

Beste kontu bat da, ordea, euskararen erabilerari dagokiona. Galdetzean ea Euskal Herrian jende guztiak euskaraz hitz egin beharko ote lukeen, oso kopuru nabarmena (%57,5) zegoen iritzi horrekin ados edo oso ados 1992ko galdeketan. Hamar urte geroago, berriz, kopuru hori %38,4ra jaitsi da. Esan daiteke euskararen normalizazio sozialari buruzko iritzia epeldu egin dela. Galdutako 20 puntuak antzeratsu erdibanatzen dira zalantzazko eta kontrako iritzien artean.

---

## **9. ondorioa, euskararen egoerari buruzko iritziaz**

**Euskararen egoera egun eta etorkizunean berdintsu hautematen dute gazteek bietan.**

---

Bai 1992an (%56,4), bai orain (%42,5), gehien nabarmentzen den kategoria tartekoa da; hots, euskararen egoera ez ontzat ez txartzat hautematen dutenena. Hala ere, aipatu beharrekoa da ezen ia 14 puntuko jaitsiera izan duela. Beraz, bada hemen fenomeno aipagarriarik. Puntu horiek erdibanaturik joan dira mutur batera zein bestera. Puntu horietatik 8 “oso ona” eta “ona” kategorietara joan dira. Gainerako 6 puntuak “txarra” edo “oso txarra” kategorietara. Beraz, ez da nabarmentzen mutur bat bestea baino gehiago.

Euskararen etorkizunaz baikor samar agertzen zaizkigu gazteak bi galdeketetan. Orduko hartan, gazteen %59,5ek zioten euskararen etorkizuna “askoz hobe edo hobe” izango zela. 2002ko galdeketan, halaber, era baikor bertsuan ikusten dute euskararen etorkizuna gazteen %49,7k.

## **10. ondorioa, etxeko hizkuntzazko egoeraz**

**Gazteek etxean duten hizkuntzazko egoera berdintsua da bietan, gaitasunean bezala erabileran ere. Salbuespen bakarra da nabarmen egin duela gora euskarazko gaitasunak anai-arreben artean.**

---

Komeni da, etxeko hizkuntzazko egoera aztertzean, gurasoak eta anai-arrebak bereiztea.

Gurasoei dagokienez, baldin eta ama eta aita euskaldunen kopurua 1992an %25,1ekoa bazen, hamar urteren buruan bere horretan jarraitzen du; hots, %25,5ean. Hemen, euskaldun jotzen dugu euskaraz mintzatzean “oso ongi” edo “nahiko ongi” moldatzen direnak. Aldaketa eza berdin gertatzen da ama bakarrik hartu edo aita bakarrik hartu. Beraz, esan daiteke, nahi baldin baduzue, ez dela ez ama euskaldunen kopurua ez aita euskaldunen kopurua aldatu azken hamar urteotan.

Euskarazko erabilera ere –hots, gurasoen eta seme-alaben artekoa ere– ez da aldatu: %13,1ekoa zen 1992an eta %16,5ekoa da 2002an. Hemen, euskarazko erabilera jotzen dugu harremana euskaraz “beti” edo “gehienetan” izaten denean.

Euskarazko eskolatzeak izan duen hazkunde ikaragarriaren ondorioz (datu hori aurreraxeago ikusiko dugu zehazki), euskaldundu egin dira belaunaldi berriak. Horixe ikusten da, hain zuzen ere, gazte senideen euskarazko gaitasuna aztertzen dugunean. Anai-arreben artetik %47,7 baziren euskaldunak 1992an, kopuru hori are gehiago hazi da (%67,6raino) 2002ko galdeketan: 20 puntuko igoera nabarmena. Igoera edo aldaketa hori, ordea, ez dator bat euskarazko erabilerarekin. Anai-arreben arteko euskarazko harremana (euskaraz “beti” edo “gehienetan”) %13,3koa zen 1992an eta %19,2koa orain. Beraz, berdintsu bietan.

---

## **11. ondorioa, lagunarteko hizkuntzazko egoeraz**

**Euskaldun hutsezko lagunartek gora oso nabarmen egin duten arren, erabileran emaitza berdintsuak ditugu bietan.**

---

Aurrekoan anai-arreben arteko hizkuntzazko egoeraz esandakoa hitzez hitz ekar genezake atal honetara, lagunarteen hizkuntzazko egoeraz hitz egiteko.

Izan ere, euskaldunen kopuruak gora nabarmen egin duen neurrian, eta horixe dugu bereziki euskarazko eskolatzearen hazkundearen ondorioa, gazteen lagunarteetan ere euskaldunen kopuruak gora egin du. Daturik esanguratsuena da euskaldun hutsez osaturiko lagunarteen kopuruak jauzi ikaragarria egin duela hamar urtean: %16,4tik %55,1era. Baina, harrigarria badirudi ere, euskarazko jokoerak berdintsu dirau bi neurketetan, 6 puntu inguruko aldea baino ez baitago batetik bestera. Zehazki esanda, %23,5ekoa zen 1992an euskarazko erabilera lagun euskaldunekin (alegia, euskaraz “beti” edo “gehienetan”) eta %30ekoa 2002an.

## **12. ondorioa, eskolako ikastereduez**

**Izugarri hazi da Lehen Hezkuntza D eta B ereduetan egin duten gazteen kopurua.**

---

Hamar urteotan A ereduak zeharo galdu du lehen zuen erabateko nagusitasuna: Lehen Hezkuntza A ereduan ikasi zuten gazteen portzentajea %80tik %19,2ra jaisteraino. Benetako iraulketa, inondik ere.

Beste muturrean ditugu B eta D ereduak. Lehenengoak –B ereduak– 32 puntuko hazkundera izan du bi neurketen artean, eta D ereduak 28 puntukoa. Hazkunde esanguratsuak biak, zalantzarik gabe.

---

## **13. ondorioa, 13-14 urteko gazteez**

**Hizkuntzazko egoeraz orain arte emaniko irudian, salbuespen bakarra dago: 13-14 urtekoen azpitaldea, hain zuzen ere. Izan ere, horiek nabarmen hobea dute orain etxeko hizkuntzazko egoera orain hamar urte baino, bai amaren, aitaren eta anai-arreben euskarazko gaitasunaren aldetik, bai eta horiekin guztiekin erakusten duten euskarazko erabileraren aldetik ere. Gauza bera esan genezake lagunartean erakusten duten hizkuntzazko jokaera dela eta, izugarri hazi baitute lagunekin euskara hutsez jarduteko joera.**

---

Adinezko azpitaldeak aztertzen ditugunean, konturatzen gara badela besteetatik aldentzen den talde bat: 13-14 urtekoen azpitaldea.

Has gaitezen etxeko hizkuntzazko ezaugarrietatik.

Azpitalde honetako kideen amek euskarazko gaitasuna 17 puntu hobetu dute bi neurketen artean. Aldaketa, hala ere, euskaraz “nahiko ongi mintzatzen da” kategorian gertatu da, baina ez “oso ongi” kategorian.

Aiten kasuan, 19 puntu hobetu dute euskarazko gaitasuna, eta, amenean bezalaxe, euskaraz “nahiko ongi mintzatzen da” kategorian.

Anai-arreben euskarazko gaitasunari dagokion atalean, 23 puntuko hazkundea sumatzen dugu neurketa batetik bestera. Gainera, euskaraz “oso ongi mintzatzen da” kategorian gertatu da hazkunde guztia.

Euskarazko erabilera gogoan hartuta, hazkunde esanguratsuak ikusten ditugu era berean: amarekin, 23 puntuko hazkundea; aitarekin, 13koa; anai-arrebekin, 18koa.

Lagunarteei begiratzen badiegu, haietan ere aldaketa aipagarriak antzematen ditugu.

Beste azpitaldeetan bezala, horiek ere euskaldun hutsez osatutako lagunarteetan daude murgilduak. Era horretako lagunarteak %32 baziren 1992an, %70raino iritsi dira hamar urte geroago. Horretan, beraz, ez dira beste taldeetatik bereizten, baina, euskarazko jokaerari begiratzen badiogu, orduan bai aldea, horiek izugarri handitu baitute euskara hutsezko harremana bere lagun euskaldunekin. Izan ere, halako harremanen kopurua %7,7koa bazen 1992an, %55eraino iritsi da 2002an: 47 puntuko aldea batetik bestera. Ez da, beraz, nolanhiko hazkundea.

Bada azken datu esanguratsu bat: gainerako azpitaldeek nabarmen hobetu dute euskarazko gaitasuna, baina "euskaraz nahiko ongi mintzatzen da" kategorian soilik. Gure 13-14 urteko gure gaztetxo horiek ere, aurrekoek bezala, aurrera egin dute "euskaraz nahiko ongi mintzatzen da" kategorian –18 puntuko hazkundera–, baina, aurrekoek ez bezala, "euskaraz oso ongi mintzatzen da" kategorian ere 15 puntuko hazkundera izan dute.

## Ikuspegi orokorra

Etxea eta etxeoak. Horra hor hizkuntza gizarteratzeko garaian sekulako boterea duen esparrua. Boterea diogu, bai hizkuntzako gaitasuna eskuratzeko, bai hizkuntzako jokaera finkatzeko, bai eta hizkuntza aintzat hartzeko eta maitatzeko ere. Bada, horretan ez da aldaketarik gertatu, euskararen ikuspegitik begiratuta. Lehengo lepotik burua. Ez aurrera, ez atzera. Bere horretan eta lehengo neurri berean dirau.

Eskola. Zenbat ordu, egun eta urte ez ote ditugu ematen han! Nork ukatuko horrek hizkuntzaren gizarteratzean duen indarra eta eragina? Bada, hemen bai, aldaketa nabarmena gertatu da, nahiz eta aldaketa hitza bera ere labur gelditzen den. Iraultetaz hitz eginda, beharbada, hobeto adieraziko genuke gertatukoa. Euskarazko irakaskuntza nagusi bihurturik daukagu egun; erdara hutsezkoa, berriz, zoko-zokoan gelditu da. Eta hori guztia hamar urte eskasean. Sekulakoa!

Baina, eskolan, hizkuntzaren gizarteratzea ez da etxean bezain osatua izaten. Eskolak, bereziki, hizkuntzako gaitasuna garatzen du, baina ez du horren erraz zabaltzen hizkuntzarekiko maitasuna, eta are zailago du hizkuntzako jokaerako erroak finkatzea. Horregatik, seguru asko, gazteen euskarazko gaitasunean ikusten dira aldaketa nabarmenak; ez, ordea, euskarazko erabileran (ez behinik behin kopuru edo neurri nabarmenetan).

Lagunak eta lagunartea. Horra hor gizarteratzearen beste eremu garrantziko bat, maiz aipatzen dena. Etxeko eta eskolako eremuetan ez bezala, haietan gurasoek eta irakasleek hautatzen baitute harremanetako hizkuntza, lagunartean, gazteak berak dira, beren baitako hautua eginez eta besteekin interakzioan jardunez, harremanetako hizkuntza finkatzen dutenak. Horregatik da eremu horretan erabiltzen den hizkuntza hein handiagoan norberaren benetako hizkuntza-hautuaren seinale, eta, horregatik, erabileraren neurria kontuan hartzerakoan, lagun euskaldunekin erabilitako hizkuntza hartu dugu gogoan.

Harrigarria da, orduan, ikustea nola lagunarteak izugarri euskaldundu diren, nola euskaldunen kopurua erruz ugaltu den eta, hala ere, euskarazko erabilera apenas aldatu den. Zergatikoa aurkitzeak mutur ugari izango ditu, baina bat bederen argi samar dago: euskaldun gehienek hizkuntza gaitasuna ez da guztiz osatua, eta horrek uxatzen du euskarazko erabilera. Baldin eta hipotesi gisa onartzen badugu ezen egoera libre batean hizkuntza bat hautatu behar eta ondoena menderatzen duguna hartuko dugula, orduan, ez da harriztekoa lagunarteko harremanetan euskara hautatu ez izana, zeren, euskaldunak ugaltu badira ere, gehienak “nahiko ongi” bai baina ez “oso ongi” mintzatzen direnak baitira eta, ondorioz, erdaraz hobeki astintzen baitute mingaina euskaraz baino.

13-14 urteko gaztetxoek beste adin-taldekoek baino euskarazko ezaugarri gehiago dituztela ere esana genuen ondorioetan. Ez dakigu, ordea, zein arrazoi edo hipotesi eman hori azaltzeko, ez eta horrek beste ziklo baten hasiera adierazten ote duen baieztatzeko ere.

## Datuen bilduma: 1992ko eta 2002ko datuen konparazioa

### Datu soziodemografikoak

#### *Unibertso osoa (13-24 urte)*

	1992	2002
Gazte-kopurua	4.400	2.512

#### *Adina*

	1992	2002
13-14 urte	13,4	12,0
15-18 urte	35,9	31,1
19-24 urte	50,6	56,9

#### *Inkestatuen sexua*

	1992	2002
Gizonezkoak	48,2	47,9
Emakumezkoak	51,8	52,1

#### *Inkestatuen jaiolekua*

	1992	2002
Gipuzkoa	93,3	95,2
Euskal Herriko beste lurraldeak	1,1	0,6
Euskal Herritik kanpo	5,6	4,2

*Inkestaturen aita-amen jaiolekuak*

	Aita		Ama	
	1992	2002	1992	2002
Gipuzkoa	28,2	38,3	33,3	41,9
Euskal Herriko beste lurraldeak	5,1	0,6	5,7	4,2
Euskal Herritik kanpo	65,6	61,1	60,0	53,9

*Inkestaturen eguneroko betebeharrak*

	1992	2002
Ikastea	74,9	71,9
Lanean aritzea	16,4	23,4
Lan bila ibiltzea	7,2	2,4
Bestelakoa	1,5	2,4

*Inkestatuak gaztelania eta euskara ikasi zuteneko adina*

	Euskara		Gaztelania	
	1992	2002	1992	2002
3 urte bete aurretik	26,2	51,5	85,6	85,0
4 eta 16 urte bitartean	27,7	43,1	14,3	15,0
17 eta 24 urte bitartean	1,0	1,8	0,0	0,0
Ez du ikasi	43,6	3,0	0,0	0,0
EE <sup>1</sup>	1,5	0,6	0,0	0,0

<sup>1</sup> EE: Erantzunik ez

## Hizkuntzazko datuak

### Profil orokorra

#### Unibertso osoa

Gaitasuna	Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Euskaraz hitz egiteko gaitasuna	29,7	32,9	13,3	30,5	28,2	25,1	23,1	9,6	5,6	1,8

Erabilera	Beti euskaraz		+ Euskaraz - Erdaraz		Berdin		- Euskaraz + Erdaraz		Beti erdaraz		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Lagun euskaldunekin euskaraz hitz egin	12,7	20,4	10,8	9,6	20,6	12,0	27,5	16,2	25,5	41,3	2,9	0,6

Jarrera	Gutziz ados		Ados		Zalantza		Kontra		Gutziz kontra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	29,4	26,3	29,9	32,3	20,1	21,0	10,3	18,0	10,3	1,8	0,0	0,6
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	26,7	15,6	30,8	22,8	20,5	31,1	12,3	22,2	9,7	7,8	0,0	0,6

*13-14 urte bitartekoak*

Gaitasuna	Oso ongi		Nahiko ongi		Zerxbobait		Hitz batzuk		Batere ez	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Euskaraz hitz egiteko gaitasuna	40,0	55,0	12,0	30,0	24,0	15,0	20,0	0,0	4,0	0,0

Erabilera	Beti euskaraz		+ Euskaraz - Erdaraz		Berdin		- Euskaraz + Erdaraz		Beti erdaraz		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Lagun euskaldunekin euskaraz hitz egin	7,7	55,0	7,7	5,0	23,1	10,0	15,4	10,0	46,2	20,0	0,0	0,0

Jarrera	Gutziz ados		Ados		Zalantza		Kontra		Gutziz kontra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	37,5	25,0	20,9	25,0	25,0	20,0	8,4	30,0	8,3	0,0	0,0	0,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	24,0	5,0	32,0	25,0	16,0	40,0	16,0	30,0	12,0	0,0	0,0	0,0

**15-18 urte bitartekoak**

Gaitasuna	Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Euskaraz hitz egiteko gaitasuna	37,8	26,9	13,3	46,2	25,6	23,1	22,2	1,9	1,1	1,9

Erabilera	Beti euskaraz		+ Euskaraz - Erdaraz		Berdin		- Euskaraz + Erdaraz		Beti erdaraz		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Lagun euskaldunekin euskaraz hitz egin	13,0	11,5	13,0	13,5	27,8	13,5	16,7	17,3	24,1	44,2	5,6	0,0

Jarrera	Gutziz ados		Ados		Zalantza		Kontra		Gutziz kontra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	34,4	19,2	24,4	36,5	22,2	25,0	6,6	13,5	12,2	3,8	0,0	1,9
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	30,0	13,5	28,8	21,2	24,4	26,9	6,7	21,2	10,0	15,4	0,0	1,9

*19-24 urte bitartekoak*

Gaitasuna	Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Euskaraz hitz egiteko gaitasuna	23,0	31,6	15,0	22,1	29,0	28,4	24,0	15,8	9,0	2,1

Erabilera	Beti euskaraz		+ Euskaraz - Erdaraz		Berdin		- Euskaraz + Erdaraz		Beti erdaraz		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Lagun euskaldunekin euskaraz hitz egin	12,2	17,9	8,2	8,4	16,3	11,6	36,7	16,8	26,5	44,2	0,0	1,1

Jarrera	Gutziz ados		Ados		Zalantza		Kontra		Gutziz kontra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	23,0	30,5	38,0	31,6	17,0	18,9	13,0	17,9	9,0	1,1	0,0	0,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	27,0	18,9	33,0	23,2	17,0	31,6	15,0	21,1	8,0	5,3	0,0	0,0

## Datu zehatzak aldagaika

### Inkestaturen euskarazko gaitasuna

#### *Unibertso osoa*

	Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Ulertu	42,1	53,3	19,5	27,5	24,1	16,2	11,8	1,8	2,6	1,2
Hitz egin	29,7	32,9	13,3	30,5	28,2	25,1	23,1	9,6	5,6	1,8
Irakurri	42,1	52,7	20,5	25,7	17,9	18,6	13,8	1,2	5,6	1,8
Idatzi	34,9	36,5	22,6	34,1	22,6	21,0	15,4	6,6	4,6	1,8

#### *13-14 urte*

	Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Ulertu	60,0	75,0	8,0	25,0	20,0	0,0	12,0	0,0	0,0	0,0
Hitz egin	40,0	55,0	12,0	30,0	24,0	15,0	20,0	0,0	4,0	0,0
Irakurri	44,0	75,0	24,0	25,0	16,0	0,0	16,0	0,0	0,0	0,0
Idatzi	48,0	50,0	12,0	40,0	24,0	10,0	16,0	0,0	0,0	0,0

*15-18 urte*

	Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Ulertu	50,0	59,6	22,2	32,7	15,6	5,8	8,9	0,0	3,3	1,9
Hitz egin	37,8	26,9	13,3	46,2	25,6	23,1	22,2	1,9	1,1	1,9
Irakurri	52,2	53,8	14,4	30,8	18,9	13,5	11,1	0,0	3,3	1,9
Idatzi	50,0	36,5	14,4	48,1	21,1	13,5	13,3	0,0	1,1	1,9

*19-24 urte*

	Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Ulertu	35,0	45,3	19,0	25,3	30,0	25,3	13,0	3,2	3,0	1,1
Hitz egin	23,0	31,6	15,0	22,1	29,0	28,4	24,0	15,8	9,0	2,1
Irakurri	35,0	47,4	23,0	23,2	19,0	25,3	15,0	2,1	8,0	2,1
Idatzi	24,0	33,7	30,0	25,3	22,0	27,4	16,0	11,6	8,0	2,1

## Inkestaturen jarrera<sup>2</sup>

### *Unibertso osoa*

	Guztiz ados		Ados		Zalantza		Kontra		Guztiz kontra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
1	29,4	26,3	29,9	32,3	20,1	21,0	10,3	18,0	10,3	1,8	0,0	0,6
2	26,7	15,6	30,8	22,8	20,5	31,1	12,3	22,2	9,7	7,8	0,0	0,6
3	4,6	1,8	3,6	3,0	3,6	4,2	11,3	48,5	76,9	41,9	0,0	0,6
4	27,7	22,8	20,5	32,9	23,6	25,1	12,8	13,8	15,4	4,8	0,0	0,6
5	26,3	10,2	17,5	25,1	13,9	21,6	13,9	31,7	28,4	10,8	0,0	0,6
6	41,6	24,6	19,4	33,5	17,4	32,3	8,5	5,4	13,2	3,6	0,0	0,6
7	14,0	6,6	30,6	16,8	29,0	57,5	18,1	15,0	8,3	3,6	0,0	0,6
8	45,4	25,7	25,8	47,3	16,0	19,2	7,2	6,0	5,7	1,2	0,0	0,6
9	19,1	9,6	21,6	18,6	30,4	52,1	14,4	15,6	14,4	3,6	0,0	0,6
10	26,4	18,0	27,0	28,7	12,4	22,8	17,6	25,1	16,6	4,8	0,0	0,6
11	51,3	40,1	22,8	43,7	13,0	12,0	8,3	3,6	4,7	0,0	0,0	0,6
12	25,6	12,0	15,9	38,9	14,4	13,2	15,4	18,0	28,7	17,4	0,0	0,6
13	48,5	27,5	25,7	36,5	12,4	24,0	8,8	9,0	4,6	2,4	0,0	0,6

- 1) Euskal Herrian, mundu guztiak jakin beharko luke euskaraz.
- 2) Euskal Herrian, mundu guztiak euskaraz hitz egin beharko luke.
- 3) Denok erdaraz badakigunez gero, ez litzateke euskaraz jakin beharrik.

<sup>2</sup> 1992ko eta 2002ko ikerketetan eskala ezberdinak erabili ziren. Hona hemen bien artean egin den parekatzea:

1992	2002
Oso ados	Oso ados
Nahiko ados	Ados
Ados	
Berdin zaio	Zalantza
Aurka	Kontra
Nahiko aurka	
Aurka	Oso kontra

- 4) Euskal Herrian lan egiteko, euskaraz jakitea eskatu beharra dago.
- 5) Lanpostu publikoetan lan egiteko, euskaraz jakin beharra dago.
- 6) Euskara ez balute helburu partidistekin lotuko, hobeto legoke.
- 7) Euskararen egoeraren errudunak instituzioak dira.
- 8) Euskararen egoeraren errudunak denok gara (euskaldunak eta erdaldunak).
- 9) Euskararen egoeraren errudunak politika eta politikariak dira.
- 10) Lasarteoriatar guztiok jakin eta hitz egin behar dugu euskaraz.
- 11) Lasarte-Orian, badira euskara ikasteko bideak.
- 12) Lasarte-Orian bizitzeko, ez dugu euskararen beharrik.
- 13) Lasarte-Oria gehienbat herri erdalduna denez gero, euskararen aldeko neurriak hartu behar dira.

### 13-14 urte

	Guztiz ados		Ados		Zalantza		Kontra		Guztiz kontra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
1	37,5	25,0	20,9	25,0	25,0	20,0	8,4	30,0	8,3	0,0	0,0	0,0
2	24,0	5,0	32,0	25,0	16,0	40,0	16,0	30,0	12,0	0,0	0,0	0,0
3	8,0	0,0	0,0	5,0	4,0	0,0	4,0	70,0	84,0	25,0	0,0	0,0
4	28,0	0,0	20,0	70,0	32,0	10,0	8,0	20,0	12,0	0,0	0,0	0,0
5	20,0	0,0	20,0	20,0	24,0	30,0	12,0	50,0	24,0	0,0	0,0	0,0
6	16,7	10,0	8,3	15,0	33,3	50,0	16,6	20,0	25,0	5,0	0,0	0,0
7	8,0	5,0	24,0	10,0	44,0	65,0	12,0	20,0	12,0	0,0	0,0	0,0
8	40,0	10,0	24,0	55,0	16,0	35,0	12,0	0,0	8,0	0,0	0,0	0,0
9	12,5	5,0	8,4	5,0	29,2	80,0	20,9	10,0	29,2	0,0	0,0	0,0
10	32,0	20,0	24,0	35,0	12,0	0,0	20,0	45,0	12,0	0,0	0,0	0,0
11	56,0	55,0	12,0	45,0	20,0	0,0	4,0	0,0	8,0	0,0	0,0	0,0
12	28,0	5,0	8,0	20,0	24,0	30,0	16,0	30,0	24,0	15,0	0,0	0,0
13	52,0	5,0	28,0	20,0	4,0	30,0	16,0	30,0	0,0	15,0	0,0	0,0

*15-18 urte*

	Guztiz ados		Ados		Zalantza		Kontra		Guztiz kontra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
1	34,4	19,2	24,4	36,5	22,2	25,0	6,6	13,5	12,2	3,8	0,0	1,9
2	30,0	13,5	28,8	21,2	24,4	26,9	6,7	21,2	10,0	15,4	0,0	1,9
3	6,7	1,9	4,4	3,8	3,3	5,8	11,1	40,4	74,4	46,2	0,0	1,9
4	31,1	25,0	22,2	44,2	23,3	19,2	11,1	3,8	12,2	5,8	0,0	1,9
5	25,6	13,5	14,4	21,2	12,2	21,2	20,0	36,5	27,8	5,8	0,0	1,9
6	30,3	26,9	21,3	25,0	23,6	36,5	12,3	5,8	12,4	3,8	0,0	1,9
7	18,0	7,7	24,7	15,4	25,8	46,2	22,4	23,1	9,0	5,8	0,0	1,9
8	47,8	28,8	24,4	50,0	13,3	15,4	10,0	1,9	4,4	1,9	0,0	1,9
9	20,0	11,5	21,1	13,5	30,0	18,1	12,3	19,2	16,7	5,8	0,0	1,9
10	28,9	17,3	22,2	25,0	20,0	25,0	14,5	25,0	14,4	5,8	0,0	1,9
11	55,6	44,2	22,2	38,5	8,9	13,5	8,9	1,9	4,4	0,0	0,0	1,9
12	24,4	11,5	6,7	42,3	17,8	15,4	21,2	15,4	30,0	13,5	0,0	1,9
13	54,4	30,8	25,6	36,5	10,0	21,2	6,6	7,7	3,3	1,9	0,0	1,9

*19-24 urte*

	Guztiz ados		Ados		Zalantza		Kontra		Guztiz kontra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
1	23,0	30,5	38,0	31,6	17,0	18,9	13,0	17,9	9,0	1,1	0,0	0,0
2	27,0	18,9	33,0	23,2	17,0	31,6	15,0	21,1	8,0	5,3	0,0	0,0
3	1,0	2,1	4,0	2,1	3,0	4,2	12,0	48,4	80,0	43,2	0,0	0,0
4	26,0	26,3	21,0	18,9	21,0	31,6	16,0	17,9	16,0	5,3	0,0	0,0
5	26,3	10,5	19,2	28,4	12,1	20,0	12,2	25,3	30,3	15,8	0,0	0,0
6	55,7	26,3	19,6	42,1	11,3	26,3	4,2	2,1	9,3	3,2	0,0	0,0
7	14,1	6,3	36,4	18,9	25,3	62,1	19,2	9,5	5,1	3,2	0,0	0,0
8	43,4	27,4	27,2	44,2	18,2	17,9	6,0	9,5	5,1	1,1	0,0	0,0
9	19,0	9,5	26,0	24,2	31,0	48,4	17,0	14,7	7,0	3,2	0,0	0,0
10	23,5	17,9	32,7	29,5	8,2	26,3	18,4	21,1	17,3	5,3	0,0	0,0
11	42,9	34,7	29,6	46,3	13,3	13,7	9,1	5,3	5,1	0,0	0,0	0,0
12	26,0	13,7	24,0	41,1	7,0	8,4	14,0	16,8	29,0	20,0	0,0	0,0
13	41,4	24,2	31,3	35,8	14,1	26,3	7,1	10,5	6,1	3,2	0,0	0,0

## Pertzepzioa

### *Euskararen gaur egungo egoera*

	Oso ona		Ona		Ez ona, ez txarra		Txarra		Oso txarra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
13-14	0,0	5,0	20,0	45,0	56,0	25,0	16,0	25,0	0,0	0,0	8,0	0,0
15-18	2,2	3,8	18,9	25,0	58,9	48,1	17,8	19,2	2,2	1,9	0,0	1,9
19-24	1,0	1,1	20,0	24,2	52,0	43,2	20,0	27,4	2,0	3,2	5,0	1,1
Denak	1,0	2,4	20,0	26,9	56,4	42,5	17,4	24,6	1,5	2,4	3,6	1,2

### *Lasarte-Orian euskarak duen egoera*

	Oso ona		Ona		Ez ona, ez txarra		Txarra		Oso txarra		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
13-14	0,0	0,0	12,0	30,0	68,0	35,0	12,0	35,0	4,0	0,0	4,0	0,0
15-18	0,0	17,3	22,2	0,0	38,9	30,8	27,8	40,4	10,0	9,6	1,1	1,9
19-24	0,0	2,1	15,2	14,7	32,3	36,8	36,4	33,7	13,1	11,6	3,0	1,1
Denak	0,0	1,2	17,0	17,4	39,7	34,7	30,9	35,9	9,8	9,6	2,6	0,0

*Euskararen gaur egungo egoera orain 10 urtekoaren aldean*

	Askoz hobea		Hobea		Berdintsua		Okerragoa		Askoz okerragoa		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
13-14	16,0	0,0	20,0	0,0	4,0	0,0	8,0	0,0	12,0	0,0	40,0	100,0
15-18	10,0	5,8	31,1	17,3	13,3	15,4	21,1	17,3	4,4	0,0	20,0	44,1
19-24	17,2	13,7	40,4	31,6	10,1	28,4	10,1	18,9	2,0	0,0	20,2	7,4
Denak	14,2	9,6	34,5	23,4	9,8	21,0	13,4	16,2	4,6	0,0	23,2	29,9

*Euskararen etorkizuna*

	Askoz hobea		Hobea		Berdintsua		Okerragoa		Askoz okerragoa		EE	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
13-14	12,0	15,0	28,0	50,0	44,0	20,0	0,0	10,0	4,0	0,0	12,0	5,0
15-18	16,7	3,8	44,4	36,5	23,3	36,5	8,9	15,4	2,2	1,9	4,4	5,7
19-24	18,0	10,5	43,0	41,1	25,0	31,6	6,0	12,6	0,0	2,1	8,0	2,1
Denak	17,4	9,0	42,1	40,7	26,7	31,7	6,2	13,2	0,5	1,8	7,2	3,6

## Etxean: euskarazko gaitasuna eta erabilera

### Unibertso osoa

		Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez		EE	
		1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Gaitasuna	Ama	23,6	20,4	3,6	6,0	5,1	9,0	16,9	9,0	49,2	41,9	1,5	0,6
	Aita	17,4	18,6	5,6	6,0	6,7	7,8	17,9	7,8	51,3	47,9	1,0	0,6
	Anai-arrebak	30,8	41,3	16,9	26,3	23,6	18,6	15,9	18,6	5,6	2,4	7,2	7,2
	Besteren bat	7,1	19,2	0,5	8,4	0,0	6,6	1,4	6,6	17,3	0,6	72,5	26,9
Erabilera		Beti euskaraz		+ Euskaraz - Erdaraz		Berdin		+ Erdaraz - Euskaraz		Beti erdaraz		EE	
	Ama	10,8	15,6	4,1	3,0	3,6	4,8	5,1	5,4	74,9	68,3	1,5	3,0
	Aita	10,8	12,6	0,5	1,8	3,1	3,0	4,1	7,2	80,0	73,7	1,5	1,8
	Anai-arrebak	9,7	16,2	3,6	3,0	8,2	6,0	11,8	13,2	60,5	52,7	6,2	9,0
	Besteren bat	2,2	14,4	0,0	4,2	1,4	7,8	0,5	3,6	23,1	62,9	72,8	7,2

## 13 –14 urte

		Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez		EE	
		1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Gaitasuna	Ama	28,0	30,0	0,0	15,0	0,0	25,0	32,0	15,0	40,0	15,0	0,0	0,0
	Aita	16,0	30,0	0,0	15,0	4,0	10,0	24,0	10,0	56,0	30,0	0,0	5,0
	Anai-arrebak	36,0	60,0	16,0	15,0	32,0	5,0	8,0	0,0	0,0	0,0	8,0	20,0
	Besteren bat	5,3	25,0	2,6	10,0	0,0	0,0	1,3	5,0	17,3	15,0	73,3	45,0
Erabilera		Beti euskaraz		+ Euskaraz – Erdaraz		Berdin		+ Erdaraz – Euskaraz		Beti erdaraz		EE	
	Ama	12,0	35,0	0,0	0,0	4,0	5,0	4,0	10,0	80,0	50,0	0,0	0,0
	Aita	12,0	20,0	0,0	5,0	0,0	5,0	0,0	10,0	84,0	55,0	4,0	5,0
	Anai-arrebak	12,0	30,0	0,0	0,0	0,0	10,0	20,0	5,0	60,0	35,0	8,0	20,0
	Besteren bat	2,7	20,0	0,0	0,0	2,7	20,0	0,0	5,0	20,0	55,0	74,6	0,0

## 15-18 urte

		Oso ongi		Nahiko ongi		Zertxobait		Hitz batzuk		Batere ez		EE	
		1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Gaitasuna	Ama	16,7	17,3	6,7	5,8	6,7	9,6	20,0	32,7	48,9	34,6	1,1	0,0
	Aita	22,2	17,3	7,8	5,8	6,7	9,6	18,9	17,3	44,4	50,0	0,0	0,0
	Anai-arrebak	36,7	46,2	15,6	26,9	16,7	13,5	14,4	3,8	7,8	1,9	8,9	7,7
	Besteren bat	9,6	23,1	0,7	7,7	1,1	5,8	1,1	3,8	13,4	23,1	74,0	36,5
Erabilera		Beti euskaraz		+ Euskaraz – Erdaraz		Berdin		+ Erdaraz – Euskaraz		Beti erdaraz		EE	
	Ama	7,8	11,5	4,4	5,8	3,3	3,8	8,9	7,7	74,4	65,4	1,1	5,8
	Aita	12,3	9,6	1,1	1,9	4,4	5,8	7,8	9,6	74,4	69,2	0,0	3,8
	Anai-arrebak	12,2	15,4	4,4	5,8	10,0	7,7	11,1	15,4	54,4	44,2	7,8	11,5
	Besteren bat	4,5	17,3	0,0	3,8	1,8	7,7	0,4	3,8	18,5	57,7	74,8	9,6

**19-24 urte**

		Oso ongi		Nahiko ongi		Zerxobait		Hitz batzuk		Batere ez		EE	
		1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Gaitasuna	Ama	26,0	20,0	1,0	4,2	6,0	5,3	10,0	17,9	55,0	51,6	2,0	1,1
	Aita	16,0	16,8	5,0	4,2	7,0	6,3	14,0	22,1	56,0	50,5	2,0	0,0
	Anai-arrebak	29,0	34,7	15,0	28,4	26,0	24,2	18,0	5,3	5,0	3,2	7,0	4,2
	Besteren bat	6,0	15,8	0,3	8,4	2,0	8,4	1,0	9,5	20,1	40,0	70,9	17,9
Erabilera		Beti euskaraz		+ Euskaraz - Erdaraz		Berdin		+ Erdaraz - Euskaraz		Beti erdaraz		EE	
	Ama	13,0	13,7	4,0	2,1	3,0	5,3	3,0	3,2	75,0	73,7	2,0	2,1
	Aita	10,0	12,6	0,0	1,1	3,0	1,1	3,0	5,3	82,0	80,0	2,0	0,0
	Anai-arrebak	8,0	13,7	3,0	2,1	9,0	4,2	11,0	13,7	63,0	61,1	6,0	5,3
	Besteren bat	2,0	11,6	0,0	5,3	0,7	5,3	0,7	5,2	27,7	67,4	69,7	7,4

## Lagunartean: hizkuntzazko gaitasuna eta erabilera

		Denak euskaldunak		+ euskaldunak		Erdiak euskaldunak		+ erdaldunak		Denak erdaldunak		EE	
		1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
Gaitasuna	13-14 urte	32,0	70,0	12,0	15,0	28,0	5,0	12,0	10,0	16,0	0,0	0,0	0,0
	15-18 urte	23,3	73,1	15,6	19,2	14,4	3,8	31,1	3,8	15,6	0,0	0,0	0,0
	19-24 urte	9,0	42,1	21,0	28,4	19,0	10,5	43,0	14,7	6,0	4,2	2,0	0,0
	Denak	16,4	55,1	17,4	24,0	17,9	7,8	35,9	10,8	11,3	2,4	1,0	0,0
Erabilera		Beti euskaraz		+ Euskaraz - Erdaraz		Berdin		+ Erdaraz - Euskaraz		Beti erdaraz		EE	
	13-14 urte	7,7	55,0	7,7	5,0	23,1	10,0	15,4	10,0	46,2	20,0	0,0	0,0
	15-18 urte	13,0	11,5	13,0	13,5	27,8	13,5	16,7	17,3	24,1	44,2	5,6	0,0
	19-24 urte	12,2	17,9	8,2	8,4	16,3	11,6	36,7	16,8	26,5	44,2	0,0	1,1
	Denak	12,7	20,4	10,8	9,6	20,6	12,0	27,5	16,2	25,5	41,3	2,9	0,6

## Eskolako hizkuntzazko eredua

*Lehen hezkuntza*

	Dena edo gehiena euskaraz (D eredua)		Erdia euskaraz, erdia erdaraz (B eredua)		Dena edo gehiena erdaraz (A eredua)		Besterik	
	1992	2002	1992	2002	1992	2002	1992	2002
13-14 urte	24,0	40,0	20,0	60,0	56,0	0,0	0,0	0,0
15-18 urte	23,3	50,0	2,2	36,5	74,4	13,5	0,0	0,0
19-24 urte	11,0	42,1	0,0	30,5	89,0	26,3	0,0	1,1
Denak	16,4	44,3	3,6	35,9	80,0	19,2	0,0	0,6

## **II. ATALA: NOLAKOA DA GAZTEEN EGUNGO HIZKUNTZAZKO EGOERA?**

## Sarrera

### Ondorio nagusiak

Atal honetan, hizkuntzazko jokaera dugu aztergai nagusia. Euskarazko erabileran gehien eragiten duten aldagaiak agertzen saiatuko gara batetik, baina nola eragiten duten ere antzeman nahiko diegu. Sarritan uztartuko ditugu hango eta hemengo aldagaiak, gero eta sakonago abiatzeko.

Hala ere, aurrerago egin baino lehen, ohar metodologiko bat agertu behar dugu. Maiz samar erabiliko ditugu testuan zehar izenlagun kalifikatzaileak, hizkuntzazko hainbat aldagairi buruz hizketan ari garela. Hala, esaterako, euskararen erabileraz, esan dezakegu “txikia”, “nabarmena”, “handia” edo beste zerbait dela. Ez da, ordea, garbi gelditzen zer den “txikia” edo zer “handia”. Irizpideak finkatu behar dira aldeztu aurretik, argitasunaren mesedetan. Hona hemen guk erabiliko dugun eskala:

Oso handia	%90eko puntuazioaren ingurukoa
Handia	%75eko puntuazioaren ingurukoa
Nabarmena	%50eko puntuazioaren ingurukoa
Txikia	%25eko puntuazioaren ingurukoa
Oso txikia	%10eko puntuazioaren ingurukoa

Aurrekoa argituta, beraz, prest gara geure bidaia hasteko. Jarraian dituzu, laburbildurik, bidaia honek izango dituen geltokiak:

- 1) Euskaldunen kopurua nabarmena edota handia den bitartean, euskararekiko atxikimendu emozionala txikia edo nabarmena da, eta euskararen erabilera txikia.
- 2) 13-14 urteko adinekoen multzoa da guztietan euskaldunena, bai mintzatzeko gaitasunari, bai jokoerari, bai maitasunari dagokiela.
- 3) Emakumezkoek gizkonezkoek baino errazago eskuratzen dute euskaraz mintzatzeko gaitasuna. Baina gizkonezkoek emakumezkoek baino tinkoago eusten diote euskaraz egiteari.
- 4) Euskaraz “oso ongi” eta “nahiko ongi” mintzaten direnak ezin dira “euskaldun” kategoria bakarrean bildu, ezen batzuek eta besteek guztiz

bestela jokatzeko dute hizkuntzaz den bezainbatean, hizkuntzazko atxikimendua ere zeharo ezberdina baitute.

- 5) Ama euskalduna dutenek eta ama erdalduna dutenek, nahiz eta batzuek zein besteek euskara 0-3 urte bitartean jasoa izan, guztiz bestela jokatzeko dute euskarari dagokionez. Ez da egokia bi multzo horiek kategoriatan bakarrean biltzea.
- 6) D irakastereduak bakarrik eskuratzen ditu euskararen aldeko emaitzak. B eta A irakastereduak oso antzekoak dira emaitzei dagokienez.
- 7) Euskarerenganako sentimenduak oso goitik piztua behar du euskararen aldeko emaitza argiak ikusteko.
- 8) Euskaraz "beti" egiten dutenek "gehienetan" egiten dutenek baino puntuazio nabarmenki handiagoak dituzte euskarazko gaitasunean bezala euskarerenganako sentimenduan ere.
- 9) Harreman zuzena dago kondizio pertsonalaren, kondizio sozialaren eta hizkuntzazko jokoaren artean. Horren arabera, hiruko tipologia antzematen da: 1) euskarazko muturrekoa, 2) tartekoa eta 3) erdarazko muturrekoa. Euskarazko muturreko multzoa da, zalantzarik gabe, euskararen benetako euskarria, hala alderdi kualitatiboaren aldetik nola alderdi kuantitatiboaren aldetik aztertuta ere.
- 10) Hizkuntza gizarteratzeko eremuek sortzen dituzte norbanakoen hizkuntzazko ezaugarriak. "Ama euskalduna eta D ereduak eskolatu izana" baldintzapean hazitako gazteek garbi asko erakusten dute giro horretan sortzen direla, hain zuzen ere, euskaraz mintzatzeko gaitasun oneko pertsonak eta euskaraz jokatzeko ohitura dutenak. Aldagai horietako batek edo biek huts eginez gero, orduan, izugarri behar izaten zaizkigu gaitasunean bezala erabileran ere agertzen zaizkigun euskararen aldeko datuak.
- 11) Hizkuntzazko jokoak "ama" aldagairekin lotuz gero, honako hauek ikusten ditugu: 1) aitak baino askoz ere gehiago eragiten du amak umeen hizkuntzazko jokoan; 2) ama euskaldunek euskararekin duten leialtasuna handia da, bai behintzat beste euskal hiztunena adinakoak; eta 3) gazteek lagunekin erakusten duten euskarazko jokoak eta etxean amarekin erakusten dutena oso gertukoak dira bata bestetik.

## 1. ondorioa, gaitasunaz, erabileraz eta atxikimenduaz

Euskaldunen kopurua nabarmena edo handia den bitartean, euskararekiko atxikimendu emozionala txikia edo nabarmena da, eta euskararen erabilera txikia.

Hiru aldagai besterik ez dugu aukeratu hizkuntzazko egoerari buruzko irudi xume eta orokorra emateko. Lehenengo aldagaiak gazteek euskaraz mintzatzeko duten gaitasunaren berri ematen digu. Horren arabera, %63,4 agertzen dira gai euskaraz “oso ongi” edo “nahiko ongi” mintzatzeko. Bigarrenak euskarazko jokaerari begiratzen dio eta, hori dela medio, lagun euskaldunekin euskara nola erabiltzen duten hartu dugu kontuan. Horren arabera, %30ek egiten dute beti edo gehienetan euskaraz. Hirugarrena euskararenganako maitasunari dagokio. Horren arabera, %34,8k adierazten dute euskara soilik maite dutela edota beste hizkuntzak baino bizikiago. Ikus ezazue nolakoak diren datuok:

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	32,9	30,5	25,1	9,6	1,8	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	20,4	9,6	12,0	16,2	41,3	0,6	100,0
Hizkuntza kuttuna	22,2	12,6	20,4	27,5	15,0	2,4	100,0

Taula ongi interpretatzeko, kontu egin behar zaie goiburuetan ageri diren zeinuei. Zeinu horiek bost mailako eskala adierazten dute, zeinetan “+” zeinua baita euskararen aldetik muturrik handiena eta “-” zeinua muturrik txikiena. Hitzak aldatuko dira, noski, aldagaien arabera, baina eskalaren ideia berdina izango da guztietan. Aurreko taularen irakurpena, esaterako, honako hauxe izango litzateke:

	+	>	=	<	-
Euskarazko gaitasuna	Oso ongi mintzatu	Nahiko ongi	Zerbait	Hitz batzuk	Batere ez
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	Beti euskaraz	Euskaraz gehiago gaztelaniaz baino	Bietan berdin	Gaztelaniaz gehiago euskaraz baino	Beti gaztelaniaz
Hizkuntza kuttuna	Euskara soilik	Euskara gaztelania baino gehiago	Biak berdin	Gaztelania euskara baino gehiago	Gaztelania soilik

---

## **2. ondorioa, 13-14 urtekoen ezaugarriez**

**13-14 urtekoen adin-multzoa da guztietan euskaldunena, bai mintzatzeko gaitasunari, bai jokaerari, bai maitasunari gagozkiola.**

---

Adinezko azpitalde guztiek ez dute berdin jokatzeko, eta hizkuntzazko ezaugarriak ere ez dituzte berberak.

13-14 urtekoen azpitalde gazteena da, zalantzarik gabe, besteen aldean euskararen aldeko erregistrorik altuenak dituztenak. Euskaraz ongi edo nahiko ongi mintzatzeko garaian, kopurik handiena, proportzioz, adin-tarte horrek ematen du: %85ekoa. Datuak are hobekak dira ulermena kontuan hartuz gero, %100ek ulertzen baitute euskaraz "oso ongi" edo "nahiko ongi". Gainera, dexente erabiltzen dute euskara lagun euskaldunekin ari direnean; %60ren inguruan, zehazki esateko. Maitasunaren kontuan, ez dira aurrekoetan bezainbeste aldentzen beste adin-multzoetatik, baina, hala eta guztiz ere, haien proportzioak beste taldekoenak baino altuxeagoak dira.

Bada, hala ere, datu harrigarri bat. 13-14 urtekoen adin-taldean, euskarazko jokaera euskararenganako maitasunaren aurretik dago; oso nabarmen, gainera. Hori ez da gertatzen, ezta gertutik ere, gainerako adin-taldeetan, zeinetan baitirudi euskararenganako maitasunak agintzen duela euskarazko jokaeraren nolakoan. Erabil dezakegun hipotesi bat da ezen, maitasunaz haratago, zein giza barneko gogoia baita, badela 13-14 urtekoen adin-multzoan kanpoko indar nabarmen bat, zeinek jokaera informala euskarazkoa izatera bideratzen edo behartzen baitie.

*13-14 urtekoak*

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	55,0	30,0	15,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	55,0	5,0	10,0	10,0	20,0	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	25,0	15,0	25,0	20,0	15,0	0,0	100,0

*15-18 urtekoak*

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	26,9	46,2	23,1	1,9	1,9	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	11,5	13,5	13,5	17,3	44,2	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	23,1	5,8	23,1	28,8	13,5	5,7	100,0

*19-24 urtekoak*

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	31,6	22,1	28,4	15,8	2,1	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	17,9	8,4	11,6	16,8	44,2	1,1	100,0
Hizkuntza kuttuna	21,1	15,8	17,9	28,4	15,8	1,1	100,0

### 3. ondorioa, sexuen arteko konparazioaz

**Emakumezkoek gizkonezkoek baino errazago eskuratzen dute euskaraz mintzatzeko gaitasuna. Baina gizonezkoek emakumezkoek baino tinkoago eusten diote euskaraz egiteari.**

Emakumezkoek gizonezkoek baino euskaraz mintzatzeko gaitasun handiagoa eskuratu dute. Emakumezko guztietatik %70,1ek euskaraz mintzatzeko oso gaitasun ona edo nahiko ona eskuratu duten bitartean, gizonezkoen %56,3k baino ez dute emaitza bera erdietsi.

Beste bi ezaugarrietan –hots, euskarazko jokaeran eta euskararenganako maitasunean–, berdintsu samar dabilta bi multzoak, nahiz eta emakumezkoek gizonezkoek baino pittin bat goragotik jo. Baina, emakumezkoek euskaraz mintzatzeko gaitasunean zuten kopuru handia kontuan harturik, haiek, proportzioan, gizonezkoek baino gutxiago eusten diote euskaraz egiteari.

Emakumezkoek gizkonezkoek baino errazago eskuratzen dute euskaraz mintzatzeko gaitasuna. Baina gizonezkoek emakumezkoek baino tinkoago eusten diote euskaraz egiteari. Hori nabarmena da, batez ere, eskalako muturrik altuenean, zeinetan ageri baitira batetik euskaraz oso ongi mintzaten direnak eta bestetik euskaraz beti egiten dutenak. Horren arabera, gaitasunetik erabilerara dagoen aldea nabaria da emakumezkoen artean, 18,4 puntuko galera baitute; gizonezkoen artean, berriz, txikixeago da galera hori: 6,2 puntukoa.

#### *Gizonezkoak*

	+	>	=	<	–	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	25,0	31,3	31,3	11,3	1,3	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	18,8	8,8	13,8	16,3	42,5	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	21,3	11,3	15,0	33,8	17,5	1,3	100,0

#### *Emakumezkoak*

	+	>	=	<	–	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	40,2	29,9	19,5	8,0	2,3	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	21,8	10,3	10,3	16,1	40,2	1,1	100,0
Hizkuntza kuttuna	23,0	13,8	25,3	21,8	12,6	3,4	100,0

## 4. ondorioa, euskarazko gaitasunaren kalitateaz

Euskaraz “oso ongi” eta “nahiko ongi” mintzatzen direnak ezin dira “euskalduna” kategoria bakarrean bildu, ezen batzuek eta besteek guztiz bestela jokatzeko dute hizkuntzaren aldetik, euskararekiko atxikimendua ere zeharo ezberdina baitute.

Ez da faktore hutsala, inondik inora ere, euskaraz oso ongi edo nahiko ongi mintzatzea, batzuek eta besteek oso ezaugarri eta joakera ezberdinak baitituzte, errotik bestelakoak.

Euskaraz oso ongi mintzatzen direnenetatik, kopuru handi batek –%69,1ek– egiten du euskaraz beti edo gehienetan lagun euskaldunekin. Era berean, kopuru handi batek –%70,9k– euskara du hizkuntza kuttun bakarra edo bederen maitatuena.

Hizkuntzazko gaitasuna kamusten denean, ordea, aldaketa itxuraz oso handia ez izanagatik ere, egoera zeharo bestelakotzen zaigu. Hala, euskaraz nahiko ongi mintzatzen direnenetatik, kopuru txiki batek –%21,5ek– egiten du euskaraz beti edo gehienetan lagun euskaldunekin. Bestalde, hizkuntzazko sentimenduei dagokienez ere, kopuru txiki batek baizik –%25,5ek– ez du euskara hizkuntza kuttun bakarra edo maitatuena.

### *Euskaraz oso ongi mintzatzen direnak*

	+	>	=	<	–	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	52,7	16,4	9,1	7,3	14,5	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	58,2	12,7	18,2	1,8	9,1	0,0	100,0

### *Euskaraz nahiko ongi mintzatzen direnak*

	+	>	=	<	–	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	7,8	13,7	17,6	13,7	45,1	2,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	9,8	15,7	29,4	33,3	9,8	2,0	100,0

Gure hiru aldagai hauek kateatuta daude barne-barnetik. Horregatik, batean gertatzen diren aldaketak berehala sumatzen dira besteetan. Baldin eta euskaraz ongi mintzatzen direnak, esaterako, halako gaitasun polit baten jabe izatera iritsi badira, euskara dexente erabili dutelako izan da, bai euskaraz eginda, bai euskaraz jasota. Behin eta berriro erabiltzen dena erraz eta berezko gertatzen da eta, denboraren buruan, ohitura bihurtzen. Hain berezko egin zaiguna geure egiten dugu, maitatu eta baliotsutzat hartzen dugu.

Era berean, norbait euskaraz nahiko ongi mintzatzen bada, horrek erakusten du ez duela hizkuntzazko praktika nahikorik izan, ez duela hizkuntza behar bezainbeste erabili eta, hortaz, zailtasunak dituela, ez dela guztiz eroso sentitzen. Zailtasunek eragozten dute hizkuntza erabiltzea, ahalegintzat hautematen baita. Eta, hala, jirabiran, erabiltzen ez dena zokoan gelditzen da, gero eta kamutsagoa, gero eta balio gutxiagokoa. Euskararen ibilbidea ez du burutu, baina bai gaztelaniarena: gaztelaniaz oso ongi mintzatzen denez gero, hura erabili ohi du, eta hura maite du.

Hortik segitzen da euskararen ibilbidea guztiz burutu duena dela euskalduna, eta horrek, gaitasunari dagokionez, oso ongi mintzatzen dela esan nahi du. "Nahiko ongi" mintzatzen dena ezin da ibilbidea bukatu duen euskalduntzat jo, erdaldunengandik euskaldunengandik baino askoz ere gertuago baitago, bai jokaeraren aldetik, bai sentimenduen aldetik.

## 5. ondorioa, euskara 3 urte arteko adinean jasotzeaz

Ama euskalduna dutenek eta ama erdalduna dutenek, nahiz eta batzuek zein besteek euskara 0 eta 3 urte bitarteko adinean jaso izan, guztiz bestela jokutzen dute euskarari dagokionez. Ez da egokia bi multzo horiek kategoria bakarrean biltzea.

Gazteen kopuru nabarmen batek –%51,5ek– aitortzen du euskara 0 eta 3 urte bitarteko adinean jaso edo ikasi zuela. Ikertzaile batzuek “ama-hizkuntza” edo “lehen hizkuntza” esaten diote horri, baina gu ez gara ados irizpide horrekin. Datu horrek zehazki adierazten duena da txiki-txikitatik hasi zirela euskara jasotzen, eta ez besterik. Bestelako kontua da ea ume horiek zein hizkuntza jaso duten etxean amarengandik. Horixe izango litzateke, hertsiki hitz eginda, ama-hizkuntza.

Guk bitan banatu dugu euskara 0 eta 3 urte bitarteko adinarekin jaso zutenen multzoa. Batean, ama euskalduna (euskaraz oso ongi mintzatzen zena) zutenak eta, horiekin batera, ama euskaraz nahiko ongi mintzatzen zena zutenak sartu ditugu (alegia, multzotik %48,8). Bestean, berriz, ama erdalduna zutenak (hots, multzotik %51,2).

Batzuek eta besteek arras irudi ezberdina ematen digute hizkuntzazko ezaugarriei begiraturik. Gaua eta eguna bezain irudi bestelakoak.

### *Euskara lehenengo hizkuntza: ama hizkuntza*

	+	>	=	<	–	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	88,1	11,9	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	54,8	23,8	9,5	7,1	4,8	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	71,4	14,3	9,5	2,4	2,4	0,0	100,0

***Euskara bigarren hizkuntza: 0-3 urte bitartean jasoa***

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	29,5	36,4	27,3	6,8	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	15,9	4,5	20,5	9,1	47,7	2,3	100,0
Hizkuntza kuttuna	9,1	13,6	29,5	29,5	13,6	4,5	100,0

Euskara ama-hizkuntza izan dutenek oso kopuru handietan burutu dute euskararen ibilbidea. Haietatik %88,1 iritsi dira, esaterako, euskaraz oso ongi mintzatzera. Euskara guztiz maitatzera %71,4 iritsi dira. Eta euskaraz beti edo gehienetan egitera %78,6.

Ezin daiteke gauza bera esan ama erdalduna izan dutenei buruz. Horien artetik, gutxi batzuek baizik (%29,5ek) ez dute eskuratu euskaraz mintzatzeko oso gaitasun ona. Euskarekiko sentimenduaren atxikimendua ere beheko aldean ibiltzen da, eta, hala, horietatik %22,7k baino ez dute euskara guztiz edo nagusiki maite. Aurreko datuen antzera, euskara erabiltzearen tasa ere txikia da, %20,4koa baino ez baita euskara beti edo gehienetan darabiltenen artean.

Beraz, pertsonen hizkuntzazko jokaera, gaitasuna eta sentimendua benetan bereizten dituen ez da 0 eta 3 urte bitarteko adinarekin euskara jaso izana, baizik eta ama euskalduna edo erdalduna izatea. Bereizketa, gainera, ez da nolana hikoia, errotikoa baizik. Euskara 0 eta 3 urte bitarteko adinean ikasi arren ama erdalduna izaniko pertsonak erdarazko jokaeratik askoz ere gertuago daude euskarazkotik baino.

Gure ustez, ezin dira bi multzo horiek kategoria berean batu; behinik behin, helburua hizkuntzazko jokaera aztertzea bada.

---

## **6. ondorioa, eskolako ikastereduez**

**D irakastereduak soilik eskuratzen ditu euskararen aldeko emaitzak. B eta A ereduak oso antzekoak dira emaitzei dagokienez.**

---

Lehen Hezkuntzako ikasketak D irakastereduan egin dituztenek erakusten dituzte emaitzarik handienak euskarari dagokionez. Haietatik %60,8 oso ongi mintzatzeko dira euskaraz. Euskara kuttunena edo oso kuttuna %56,7k dute. Erabilera-kontuetan, %51,4k beti edo gehienetan erabiltzen dute lagun euskaldunekin.

Ohar bedi irakurlea ezen datu hauek nabarmenki txikiagoak direla ama euskalduna izatearen eragina aztertzean eskuratu ditugun datuen aldean. Hala ere, eskolaren eta amaren arteko harremanaz, badugu oraindik zeresan gehiago eta mamitsuagoa, baina, oraingoz, utzi egingo dugu kontu hori, beste atal bateko gaia izango baita.

D irakastereduan ibilitako enaitzak, batez beste, erdiko tarteetan ikusiko ditugu. Ezin dugu, ordea, gauza bera esan B irakastereduan ibilitakoez. Hauek beheko eta oso beheko tarteetan kokatzen baitira. Euskarazko gaitasunari dagokionez, esaterako, %10ak baino ez du lortu euskaraz oso ongi mintzatzea. Erabilera, %13,3koa. Euskararekiko sentimendua, %21,7koa.

B irakasteredua ez du antzik D irakasteredua lortzen dituen enaitzekin; ordea, antz ikaragarria du A irakasteredua ematen dituenekin. B eta A irakastereduen arteko alderik nabarmenena da lehenengoak bigarrenak baino osatu gabeko elebidun (alegia, "euskaraz nahiko ongi mintzatzen direnak") gehiago sortzen dituela. Baina, aurretik eginiko azterketatik, honezkero jakina dugu horrelako erdaldun elebidunek erdaldun gisa jokatzeko dutela nagusiki, ez baitute euskararen ibilbidea burutu. Hortaz, euskarazko erabileraren ikuspegitik, A eta B irakastereduen enaitza berdintsua da.

Beraz, taldeak multzokatu beharko bagenitu, D eredia jarriko genuke batetik eta B eta A ereduak baturik bestetik.

### ***D eredukoak***

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	60,8	24,3	12,2	2,7	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	36,5	14,9	13,5	14,9	20,3	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	45,9	10,8	20,3	17,6	5,4	0,0	100,0

### ***B eredukoak***

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	10,0	46,7	40,0	3,3	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	10,0	3,3	15,0	16,7	53,3	1,7	100,0
Hizkuntza kuttuna	5,0	16,7	21,7	35,0	16,7	5,0	100,0

*A eredukoak*

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	12,5	15,6	28,1	34,4	9,4	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	3,1	9,4	3,1	18,8	65,6	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	0,0	9,4	18,8	37,5	31,3	3,1	100,0

## **7. ondorioa, euskararenganako sentimenduaz**

**Euskararenganako sentimenduak oso goitik piztua behar du euskararen aldeko emaitza argiak ikusteko.**

---

Hizkuntzarenganako sentimenduari helduz gero, hiru jokaera-mota ezberdin ikusten ditugu. Lehenengoa, euskara hizkuntza kuttun bakartzat dutenek erakusten dute. Horietatik, oso kopuru handi batek eskuratzen du euskaraz oso ongi mintzatzeko gaitasuna. Gainera, kopuru nabarmen batek eutsi ohi dio euskaraz aritzeko jokaerari.

Hortik behera, antzeratsu jokatzan dute bi multzotakoek: "euskara gaztelania baino gehiago maite dutenek" eta "biak berdin maite dutenek". Horiek, lehenengo taldekoekin alderaturik, dexente jaisten dituzte beren erregistroak, bai gaitasunaren aldetik, bai erabileraren aldetik. Baina, hala eta guztiz ere, haien jokaera ez da hirugarrenekoena bezain erdaltzalea.

Hirugarren jokaera "gaztelania euskara baino gehiago maite" eta "gaztelania soilik maite" dutenei dagokie. Euskararen aldetiko ezaugarriak hutsaren hurrengoak dira.

***Hizkuntza kuttuna euskara soilik***

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	86,5	13,5	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	59,5	16,2	8,1	5,4	10,8	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0

***Euskara gaztelania baino gehiago***

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	33,3	38,1	23,8	4,8	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	19,0	23,8	23,8	14,3	19,0	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0

***Biak berdin***

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	29,4	44,1	23,5	2,9	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	14,7	31,3	15,0	29,6	18,8	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0

***Gaztelania euskara baino gehiago / Gaztelania soilik***

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	8,6	31,4	38,6	20,0	1,4	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	4,3	0,0	10,0	20,0	65,7	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	0,0	0,0	0,0	64,3	35,7	0,0	100,0

---

## **8. ondorioa, euskaraz egitearen sendotasunaz**

**Euskaraz “beti” egiten dutenek “gehienetan” egiten dutenek baino puntuazio nabarmenki handiagoak dituzte euskarazko gaitasunean bezala euskararenganako sentimenduan ere.**

---

Aurreko batean aipatua genuen hizkuntzako gaitasunaren eta jokaeraren arteko harreman biribila. Hau da, ezkerretik eskuinera bezala eskuinetik ezkerreara ere interpreta daitezkeela hizkuntzako fenomeno horiek. Azal dezagun hori adibidea emanda.

Egia da, 4. ondorioan esaten genuen bezala, gaitasunak berekin dakarrela, neurri handi batean, hizkuntzako erabilera. Orduan esaten genuen, zehazki, euskaraz oso ongi mintzatzera iritsitakoek soilik zeukatela euskaraz egiteko joera eta erraztasuna. Orain, atzekoz aurrera esango dugu nola erabilerak berekin dakarren hizkuntzako gaitasunaren hobekuntza. Hala, bada, euskara erabiltzeko ohitura dutenek –alegia, “beti” edo egiten dutenek– kopuru handi-handi batean (%85,3k) eskuratu dute euskaraz mintzatzeko oso gaitasun ona. Ohitura guztiz finkatua ez dutenek eta, beraz, euskara gehienetan baizik erabiltzen ez dutenek, ordea, kopuru txikiagoan (%56,3k) eskuratu dute aurrekoek adinako gaitasun ona.

Harreman biribil bera aipa daiteke euskararenganako sentimendua eta hizkuntzako jokaeraz den bezainbatean. Egia da, bi hizkuntza erabiltzeko aukera denean, gehienbat hizkuntza bat eta ez bestea erabiltzeko, atzetik haren aldeko sentimendu argia behar dela. Baina, halaber, egiaztat daukagu ezen, hizkuntza bat zenbat eta gehiago erabili, orduan eta maiteago zaiola erabiltzailerari. Euskara erabili ohi dutenek, datuei begiraturik, euskara soilik maite dute –eta ez beste hizkuntzarik– kopuru handi batean: %64,7k. Ordea, euskarazko ohitura pittin bat ahuldu eta, beti egin ordez, gehienetan egiten dutenei aldi berean ahultzen zaie euskararenganako sentimendua: %37,5ek baino ez dute aitortzen euskara hizkuntza kuttun bakartzat.

***Lagun euskaldunekin euskaraz beti egiten dutenak***

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	85,3	11,8	2,9	0,0	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	64,7	11,8	14,7	5,9	2,9	0,0	100,0

***Lagun euskaldunekin euskaraz gehienetan egiten dutenak***

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	56,3	43,8	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	37,5	31,3	31,3	0,0	0,0	0,0	100,0

---

## **9. ondorioa, kondizio pertsonalen eta sozialen ondorioez**

Harreman zuzena dago kondizio pertsonalaren, kondizio sozialaren eta hizkuntzazko jokaeraren artean. Horren arabera, hiruko tipologia antzematen da: 1) euskarazko muturrekoa, 2) tartekoa eta 3) erdarazko muturrekoa. Euskarazko muturreko multzoa da, zalantzarik gabe, euskararen benetako euskarria, hala alderdi kualitabibotik nola alderdi kuantitatibotik aztertuta.

---

Aurreko aldagai gehienak taula batean biltzen saiatu gara. Hiruko tipologia bat egin dugu, euskararenganako sentimendua eta euskarazko gaitasuna aldagaiak uztartuz.

Tipologiak hiru ataltxo ditu, eta era honetan izendatu ditugu:

- 1) Kondizio egokiak dituztenak:
  - a) Euskararenganako maitasuna bai eta gaitasuna ere bai.
- 2) Kondizio erdipurdikoak dituztenak:
  - a) Euskararenganako maitasun argirik ez eta gaitasuna bai.
  - b) Euskararenganako maitasuna bai eta gaitasuna erdipurdikoa.
- 3) Kondizio desegokiak dituztenak:
  - a) Euskararenganako maitasun argirik ez eta gaitasuna erdipurdikoa.
  - b) Euskararenganako maitasuna bai eta gaitasunik ez.
  - c) Euskararenganako maitasun argirik ez eta gaitasunik ez.

Euskararenganako maitasuna bai edo ez ebazteko, bi aldagai uztartu ditugu: hizkuntza kuttuna eta identitate nazionala. Euskara eta Euskal Herria soilik edo gehienbat maite dituztenak hartu ditugu guk “maitasuna bai” kategoriakotzat. Gaztelania eta Espainia soilik, gehienbat edo euskara eta Euskal Herria adina maite dituztenak “maitasun argirik ez” kategoriaren azpian sailkatu ditugu.

Euskarazko gaitasunari dagokionez, mintzatzeko trebezia besterik ez dugu kontuan hartu. Eta, orduan, “gaitasuna bai” kategorian jarri ditugu euskaraz oso ongi mintzatzen direnak. “Gaitasun erdipurdikoa” kategoriak euskaraz nahiko ongi mintzatzen direnak hartu ditu. Azkenik, “gaitasunik ez” kategorian sailkatu digutu euskaraz zertxobait edo hitz batzuk dakizkitenak, bai eta batere ez dakitenak ere.

***Euskararenganako maitasunaren eta gaitasunaren aldetiko kondizioak***

	Gazte guztiak	Euskarazko ohiko erabilera <sup>3</sup>	Ama euskalduna <sup>4</sup>	D eredua Lehen Hezkuntzan
Kondizio egokiak	22,7	81,6	84,2	97,4
Kondizio erdipurdikoak	15,6	42,3	30,0	38,5
Kondizio desegokiak	61,7	7,8	3,9	21,3
Guztira	100,0			

Aurreko taulak erakusten digu nola erlazio zuzenean dauden:

- Batetik, norberaren kondizioak (maitasuna eta gaitasuna).
- Bestetik, kondizio sozialak (ama, etxea eta eskola).
- Eta, azkenik, euskarazko erabilera.

Bada “euskarazko muturra” dei genezakeen bat, zeinetan egokiak baitira kondizio pertsonalak nahiz sozialak eta handi samarra baita euskarazko jokaera. Talde horrek presentzia txikia du (%22,7koa) gazteen artean.

Bada, erdibidean, “erdipurdiko tartea”. Horretan, hiru erakusleak erdipurdikoak dira. Talde horrek ere, aurrekoak bezelaxe, presentzia txikia du (%15,6koa) gazteen artean.

Azkenik, badugu, badugunez, “erdarazko muturra” izenda dezakegun bat, zeinetan, kondizio pertsonalak eta sozialak desegokiak diren bezelaxe, euskarazko jokaera ere hutsaren hurrengoa baita. Talde horren presentzia handi samarra da da gazteen artean: %61,7koa.

Orain, badakigu euskarazko muturreko taldeak duela emankortasunik handiena euskarazko jokaerari dagokionez, zeren haietatik %81,6k egin ohi baitute euskaraz lagun euskaldunekin. Tasa nabarmen jaisten da –ia erdira: %42,3ra– erdipurdiko kondizioak bizi dituztenen kasuan. Eta emankortasunaren tasa guztiz erortzen da erdarazko muturreko taldekoak direnean: %7,8raino.

Badakigu, bestalde, Lasarte-Orian euskaraz egin ohi duten gazteen kopurua %30ekoa dela. Euskarazko muturrekoen, tartekoen eta erdarazko muturrekoen emankortasunaren tasa jakinik, berebat jakin dezakegu orain talde bakoitzak zenbateko proportzioan parte hartzen duen %30eko kopuru horretan. Ikus hurrengo taula.

<sup>3</sup> Ohiko erabilera hartu dugu “beti” edo “gehienetan” erabiltzea.

<sup>4</sup> Ama euskalduntzat hartu ditugu euskaraz “oso ongi” edo “nahiko ongi” mintzatzen direnak.

***Euskaraz jokatu ohi dutenen multzoa: gazte guztietatik %30***

	Euskaraz egiten dute lagunekin
Kondizio egokiak	18,6
Kondizio erdipurdikoak	6,6
Kondizio desegokiak	4,8
Guztira	30,0

Beraz, kalitatean bezelaxe kantitatean ere, kondizio pertsonal egokiak dituen taldeak (“euskarazko muturrekoarenak”) egiten dio ekarririk oparoena euskaraz jokatu ohi dutenen multzoari. Nabarmenki eskasagoa da beste bi taldeen ekarria.

Uztartuz gero, batetik, talde bakoitzak gazteen artean duen presentzia kuantitatiboa eta, bestetik, talde bakoitzak euskal hiztunen multzoari egiten dion ekarri kuantitatiboa, honako ondorio hau agertzen zaigu:

- 1) Gazteen multzotik %22,7k (“euskarazko muturrekoek”) %18,6z hornitzen dutela euskal hiztunen multzoa.
- 2) Gazteen multzotik %15,6k (“erdipurdiko tartekoek”) %6,6z hornitzen dutela euskal hiztunen multzoa.
- 3) Gazteen multzotik %61,7k (“erdarazko muturrekoek”) %4,8z hornitzen dutela euskal hiztunen multzoa.

---

## **10. ondorioa, hizkuntzak gizarteratzeko eremuen eraginaz**

**Hizkuntza gizarteratzeko eremuek sortzen dituzte norbanakoen hizkuntzazko ezaugarriak. “Ama euskalduna eta D ereduan eskolatu izana” baldintzapean hazitako gazteek garbi asko erakusten dute, hain zuzen ere, giro horretan sortzen direla euskaraz mintzatzeko gaitasun oneko pertsonak eta euskaraz jokatzeko ohitura dutenak. Aldagai horietako batek edo biek huts eginez gero, izugarri azpiratzen zaizkigu, gaitasunean bezala erabileran ere, agertzen zaizkigun euskararen aldeko datuak.**

---

Guk norberaren hizkuntzazko ezaugarriak bi aldagaien arabera zehaztu ditugu; hots, hizkuntzarenganako maitasun edo sentimenduaren eta mintzatzeko gaitasunaren arabera. Baina, gure ustez, norberaren ezaugarri horiek ez dira norberen emaitza, baizik eta gizarteratzeko eremuen ondoriozkoak, salbuespenak salbuespen. Azal dezagun kontua astiroxeago.

Egun euskara darabiltenek aspalditxoan hasi zuten hizkuntzaren bidea, eta ez, hain justu ere, modu aktibo eta jabetu batez, baizik eta pasibo eta inkontziente batez. Gurasoak aukeratu ez zituzten bezala, erabiltzen zuten hizkuntza ere ez zuten aukeratu. Hizkuntza bat agertu zitzaizen testuinguruaren halabeharrezko gertakari gisa. Hizkuntza hura ulertzen eta hartara moldatzen ekinez eskuratu zuten, urraska, gero eta trebezia handiagoa eta, horrekin batera, harenganako estimazioa, identifikazioa eta maitasuna. Eskola dugu beste testuinguru horietako bat, zeinetan hizkuntza emana eta ezarria agertzen baitzaio umeari. Telebista izan zitekeen beste bat. Bai eta aisiako eremuak ere.

Umeak, koxkortzean eta kontzientziaren garapenarekin batera, bere hautu pertsonalak egiteko aukera izango du, baina, ordurako, bere baitan guztiz errotuak, automatizatuak eta berezkotuak ditu hizkuntzazko gaitasuna, jokaerazko joera eta hizkuntzazko sentimendua, eta horiek guztiek, indar erraldoi baten gisa, zeharo mugatuko dituzte gaztetxoen hautu pertsonalak. Neurri ikaragarrian gara geure gizarteratzeko eremuen emaitza.

Guk hori guztia neurtu nahi izan dugu, galdeketak aukera ematen zigun neurrian. Ez guztiak, baina etxeko eta eskolako testuinguruak behinik behin aztertu ahal izan ditugu. Irizpide batzuk ezarri ditugu, ebatzi ahal izateko ea noiz gertatzen diren gizarteratzeko

eremu batean hizkuntzazko kondizio egokiak eta noiz ez. Eta, ondoren, ikusi dugu ea gizarteratzeko eremu bakoitzak zer eragin izan duen gazteek orain duten euskarazko gaitasunean eta lagun euskaldunekin erakusten duten euskarazko jokoeran.

Has gaitezen, bada, gure irizpideak argitzen. Etxea eta eskola uztartu ditugu, eta hainbat konbinazio egin ditugu. Etxeko erreferentetzat, ama eta haren euskarazko gaitasuna hartu dugu. Eskolakoan, berriz, lehen hezkuntza egitean aukeratutako irakasteredu elebiduna. Honako lau testuinguru hauek aukeratu ditugu:

- 1) Ama eta eskola
  - a) Ama oso ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea D ereduan izan da
  - b) Ama nahiko ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea D ereduan izan da
- 2) Ama soilik
  - a) Ama oso ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea B ereduan izan da
  - b) Ama oso ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea A ereduan izan da
- 3) Eskola soilik
  - a) Ama erdalduna eta eskolatzea D ereduan izan da
- 4) Ez bata ez bestea taxuz
  - a) Ama erdalduna eta eskolatzea A edo B ereduan izan da
  - b) Ama nahiko ongi mintzatzen da euskaraz eta eskolatzea A edo B ereduan izan da

Ikus ditzagun lehenengo datuak hurrengo taulan:

	Gazte guztiak	Euskarazko gaitasun oso ona
Ama eta eskola	20,3	97,0
Ama soilik	4,8	50,0
Eskola soilik	24,0	30,0
Ez bata ez bestea taxuz	50,9	7,1
Guztira	100,0	

Gazte guztietatik erdiek (%50,9k) ez dute izan gizarteratzeko testuinguru egokirik euskarari dagokionez. Testuinguru horietan hazitako gazteek apenas eskuratu duten euskaraz mintzatzeko gaitasun oso onik.

Kopuru txiki batek (%20,3k), ordea, izan ditu gizarteratzeko testuinguru egokiak, hala etxean nola eskolan. Horrela hazitako ia gazte guztiek (%97k) egiten dute oso ongi euskaraz.

Tarteko egoeretan ditugu gainerako %28,8koak. Horiek badute etxeko egoera baina ez eskolako, edota alderantzizko egoeran daude; hau da, bietatik testuinguru bakarra bizi izan dute. Euskaraz nola egiten duten ikusirik, berehala ohartzen gara tarteko puntuazioetara jaisten direla. Hala ere, ama soilik izatea edo eskola soilik izatea alderatuz gero, badirudi amaren eragina eskolarena baino altuxeagoa dela.

Ikusi nahi izan dugu nolakoa den hizkuntzazko bilakaera gizarteratzeko eremu batean, hasieratik hizkuntzazko jokaeraraino iritsi bitartean. Hala, honelako urratsak egin ditugu:

- 1) Gizarteratzeko eremu batean hazitakoak 100 badira, horietatik zenbatek eskuratu dute euskaraz mintzatzeko oso gaitasun ona?
- 2) Eta, euskaraz mintzatzeko oso gaitasun ona eskuratu duten horietatik, zenbatek erabili ohi dute euskara lagun euskaldunekin?

***Gizarteratzeko eremuaren, gaitasunaren eta erabileraren arteko kateamendua***

	Gizarteratzeko eremu batean hazitakoak	Euskarazko gaitasun oso ona	Euskara erabili ohi du
Ama eta eskola	100,0	97,0	76,4
Ama soilik	100,0	50,0	25,0
Eskola soilik	100,0	30,0	20,0
Ez bata ez bestea taxuz	100,0	7,1	2,4

Aurreko taulako zutabeen artean kenketa eginez gero, ikus dezakegu zenbatekoa den euskarazko urrats bakoitzean jasaten duen galera. Ikus dezagun bada:

*Euskararen galera urrats bakoitzean*

	Gizarteratzeko eremutik gaitasunera	Gaitasunetik erabilerara	Gizarteratzeko eremutik erabilerara
Ama eta eskola	3,0	20,6	23,6
Ama soilk	50,0	25,0	75,0
Eskola soilik	70,0	20,0	80,0
Ez bata ez bestea taxuz	92,9	4,7	97,6

Zalantzarik gabe, galerarik gutxiena duen ibilbidea amaren eta eskolaren uztarketatik datorkiguna da. Hala ere, gogoan hartu beharreko gertaera da gaitasunetik erabilerara duen 20 puntuko galera.

Hizkuntza gizarteratzeko eremu bakarra amarena denean, galera, erabileraren ikuspegitik azterturik, handia da: 75 puntukoa. Horren antzerakoa da (80 puntukoa) eremu bakarra eskolarena denean. Eta oso urruti ere ez dabil eremu bakar bat bera ere egokia ez denean, galera 97 puntukoa baita.

Ohar gaitezen gaitasunera bitarteko jauzian gertatzen dela galerarik handiena, batez ere “ama eta eskola” eremuak ez besteko guztietan. Eta, gero, hemendik erabilerara bitarteko jauzian, berdindu egiten direla galerak, “ez bata ez bestea” eremukoa salbu.

Beraz, badirudi, joera nagusi gisa, euskaraz egiteko gaitasun ona duten lagunak sortzea kostatzen dela gehiena, bereziki “ama eta eskola” eremuak ez bestekoetan. Baina, behin gaitasun onaren jabe izandakoan, datozen gizarteratzeko eremutik datozela ere, jokaera berdintsua erakusten dute gazteek euskara erabiltzean.

## 11. ondorioa, amaren eraginaz

Hizkuntzazko jokaera “ama” aldagairekin lotuz gero, honako hauek ikusten ditugu: 1) aitak baino askoz ere gehiago eragiten duela amak umeen hizkuntzazko jokaeran; 2) ama euskaldunek leialtasuna handia diotela euskarari, bai bederen beste euskal hiztunek adinakoa; eta 3) gazteek lagunekin erakusten duten euskarazko jokaera eta etxean amarekin erakusten dutena elkarrengandik oso gertukoak direla.

Etxeko hizkuntzazko egoera zehazki aztertuz gero, hainbat datu interesgarri antzeman ditzakegu.

Esaterako, badakigu gazte guztietatik %17,4 bizi direla senitarte euskaldunetan –hots, aita eta ama euskaldunak diren familietan–, %65,3 senitarte erdaldunetan, eta %16,2 senitarte mistoetan, zeinetan %9k baitute ama bakarrik euskalduna eta %7,2k aita bakarrik euskalduna.

Senitarte mistoetan gertatzen dena talaia ona da aitaren eta amaren hizkuntzazko eragina alderatzeko. Hala ikusten da ama baizik euskalduna ez duten gazteen euskarazko jokaera handia dela, bai behinik behin senitarte euskaldunetan hazitako gazteen jokaeraren parekoa. Bestelako kontua da, ordea, aita baizik euskalduna ez dutenean, zeren, orduan, txikia baita gazteen euskarazko jokaera: senitarte erdaldunetan hazitako gazteek dutena bezain txikia. Beraz, badirudi amaren hizkuntzazko gaitasunak eta jokaerak aitarenak baino askoz ere gehiago eragiten dutela gazteen hizkuntzazko jokaeran.

	Unibertso osoa	Euskara darabil	Gaztelania darabil	Guztira
Guraso euskaldunak	17,4	72,4	27,6	100,0
Ama besterik ez euskalduna	9,0	78,6	21,4	100,0
Aita besterik ez euskalduna	7,2	25,0	75,0	100,0
Guraso erdaldunak	65,3	12,8	87,2	100,0
Bestelakoak	1,1			
Guztira	100,0			

Amaren aldagaia behar bezala nabarmendu ondoren, ikus ditzagun gertuagotik aldagai horren txokoak.

Azter dezakegu, lehendabizi, zein den etxeko euskarazko erabilera eta, hori ere kontuan harturik, amaren hizkuntzazko gaitasuna. Hala, ikusten dugu euskaraz oso ongi mintzatzeko amen kopurua %20,4koa dela eta nahiko ongi moldatzen direnena %6koa. Lehen ere ikusia genuen, gogoratuko zaretenez, nola gazteek lagun euskaldunekin jardutean zeharo ezberdin jokatzten zuten, euskarari zegokionez, baldin eta euskaraz edo “oso ongi” edo “nahiko ongi” mintzatzten baziren. Ondorio bera antzeman ote dezakegu amaren hizkuntzazko jokaera aztertzean? Ba bai.

Ama euskaraz “oso ongi” mintzatzten denean, haren eta seme-alaben artean duten hizkuntzazko harremanak euskararen aldera jotzen du nabarmen. Atera kontuak, %79,4koa baita halakoetan euskara hutsezko harremana edo euskara gehienetan erabiltzen denekoa. Aldiz, baldin eta amaren euskarazko gaitasuna zertxobait kamusturik badago, “nahiko ongi” baino mintzatzten ez bada, orduan, seme-alabekiko euskarazko erabilerak %30ekoa baino ez du hartzen.

Euskararenganako leialtasuna ez da berdina hitzuna gaitasun onekoa izan ala hain onekoa ez izan. Berdin da hitzun hori nor den: ama izan ala gaztea izan. Berdin da hitzun horrek non diharduen: etxean jardun ala lagunartean jardun. Gaitasun onekoen kasuan, hiru laurdenekoa da, oro har hitz eginda, euskararenganako leialtasuna; hots, lautatik hiruk egiten dute euskaraz solaskidea euskalduna denean. Gaitasun hain ona ez dutenen kasuan, ordea, laurdenera jaisten da.

### ***Euskararenganako leialtasuna: euskarazko jokaera, solaskideak euskaldunak direnean***

	Euskaraz oso ongi mintzatzten da	Euskaraz nahiko ongi mintzatzten da
Amak seme-alaba euskaldunekin hitz egitean	79,4	30,0
Gazteak ama euskaldunarekin hitz egitean	73,0	43,0
Gazteak lagun euskaldunekin hitz egitean	69,1	21,5

Uztartu eta alderatu nahi izan ditugu gazteek etxean amarekin duten hizkuntzazko jokaera eta kalean lagunekin dutena. Zer-nolako erlazioa dute bien artean? Datuak hurrengo taulan ageri zaizkigu.

	Unibertso osoa	Lagun euskaldunekin euskaraz egiten du	Lagun euskaldunekin erdaraz egiten du	Guztira
Gazteak amarekin euskaraz egiten du	18,6	83,9	16,1	100,0

	Unibertso osoa	Lagun euskaldunekin euskaraz egiten du	Lagun euskaldunekin erdaraz egiten du	Guztira
Gazteak amarekin gaztelaniaz egiten du	78,5	18,4	81,6	100,0
Bestelakoak	2,9			
Guztira	100,0			

Datuek adierazten dutenez, oso lotuak daude gazteek etxean erakusten duten hizkuntzazko jokaera eta kalean erakusten dutena. Hala, etxean amarekin euskara erabili ohi dutenetatik, %83,9k erabili ohi dute kalean ere euskara lagunekin. Era berean, baina beste aldera, etxean amarekin gaztelania erabili ohi dutenetatik %81,6k erabili ohi dute kalean ere gaztelania lagunekin. Ondorioa honetara hurbiltzen da: "zein etxeko hizkuntza, hura kaleko hizkuntza".



## Datuen bilduma: 2002ko inkestako datuak

Inkestatuen profilak agertuko ditugu hurrengo orrialdeetan, aldagai nagusi batzuk gogoan harturik.

Datu gehien-gehienak taula batera bildu ditugu, arren eta horrela irakurleak ikuspegi osoa begi-kolpe bakar batez har dezan.

Datuak bost zutabetan agertuko dira, goiburuan sinbolo matematiko bana dutela. Ikurren esanahiak aldagaien arabera aldatuko dira. Beraz, irakur arretaz hurrengo taula, hor ematen baitugu esanahien zerrenda.

	+	>	=	<	-
Euskarazko gaitasuna	Oso ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Batere ez
Euskarazko alfabetatzea	Oso ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Batere ez
Amaren euskarazko gaitasuna	Oso ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Batere ez
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	Denek dakite	Gehienek	Erdiek edo	Gutxienek	Inork ere ez
Barneko hizkuntza	Beti euskaraz	+ Euskaraz - Erdaraz	Bietan berdin	+ Erdaraz - Euskaraz	Beti erdaraz
Amarekiko hizkuntza	Beti euskaraz	+ Euskaraz - Erdaraz	Bietan berdin	+ Erdaraz - Euskaraz	Beti erdaraz
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	Beti euskaraz	+ Euskaraz - Erdaraz	Bietan berdin	+ Erdaraz - Euskaraz	Beti erdaraz
Hizkuntza kuttuna	Euskara	+ Euskara - Gaztelania	Biak berdintsu	+ Gaztelania - Euskara	Gaztelania
Identitate nazionala	Euskalduna soilik	+ Euskalduna - Espainiarra	Biak berdintsu	+ Espainiarra - Euskalduna	Espainiarra soilik
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	Handia	Nahikoa	Tartekoa	Txikia	Batere ez
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	Gutziz ados	Ados	Zalantza	Kontra	Gutziz kontra
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	Gutziz ados	Ados	Zalantza	Kontra	Gutziz kontra
Hautematea: euskararen egoera	Oso ona	Ona	Ez ona eta ez txarra	Txarra	Oso txarra

## Gazteria

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	47,9	52,1	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	12,0	31,1	56,4	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	51,5	43,1	1,8	3,0	0,6	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	21,0	79,0	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	44,3	35,9	19,2	0,6	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	32,9	30,5	25,1	9,6	1,8	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	36,5	34,1	21,0	6,6	1,8	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	20,4	6,0	9,0	22,2	41,9	0,6	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	55,1	24,0	7,8	10,8	2,4	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	13,8	7,2	7,8	18,0	53,3	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	15,6	3,0	4,8	5,4	68,3	3,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	20,4	9,6	12,0	16,2	41,3	0,6	100,0
Hizkuntza kuttuna	22,2	12,6	20,4	27,5	15,0	2,0	100,0
Identitate nazionala	26,3	19,8	40,7	6,6	0,6	6,0	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	38,3	25,7	20,4	8,4	6,6	0,6	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	26,3	32,3	21,0	18,0	1,8	0,6	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	15,6	22,8	31,1	22,2	7,8	0,6	100,0
Hautematea: euskararen egoera	2,4	26,9	42,5	24,6	2,4	1,2	100,0

## 13-14 urtekoak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	60,0	40,0	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	100,0	0,0	1,0	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	65,0	35,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	5,0	95,0	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	40,0	60,0	0,0	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	55,0	30,0	15,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	50,0	40,0	10,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	30,0	15,0	25,0	15,0	15,0	0,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	70,0	15,0	5,0	10,0	0,0	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	30,0	0,0	15,0	30,0	25,0	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	35,0	0,0	5,0	10,0	50,0	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	55,0	5,0	10,0	10,0	20,0	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	25,0	15,0	25,0	20,0	15,0	0,0	100,0
Identitate nazionala	20,0	45,0	25,0	10,0	0,0	0,0	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	60,0	20,0	10,0	5,0	5,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	25,0	25,0	20,0	30,0	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	5,0	25,0	40,0	30,0	0,0	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	5,0	45,0	25,0	0,0	0,0	0,0	100,0

## 15-18 urte bitartekoak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	50,0	50,0	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	51,9	46,2	0,0	1,9	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	17,3	82,7	0,0	100,0		
	D eredia	B eredia	A eredia	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	50,0	36,5	13,5	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	26,9	46,2	23,1	1,9	1,9	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	36,5	48,1	13,5	0,0	1,9	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	17,3	5,8	9,6	32,7	34,6	0,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	73,1	19,2	3,8	3,8	0,0	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	11,5	11,5	9,6	19,2	18,1	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	11,5	5,8	3,8	7,7	65,4	5,8	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	11,5	13,5	13,5	17,3	44,2	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	23,1	5,8	23,1	28,8	13,5	5,7	100,0
Identitate nazionala	23,1	15,4	40,4	7,7	1,9	9,6	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	32,7	32,7	23,1	5,8	3,8	1,9	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	19,2	36,5	25,0	13,5	3,8	1,9	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	13,5	21,2	26,9	21,2	15,4	1,9	100,0
Hautematea: euskararen egoera	3,8	25,0	48,1	19,2	1,9	1,9	100,0

## 19-24 urtekoak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	44,2	55,8	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	0,0	0,0	100,0	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	48,4	43,2	3,2	4,2	1,1	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	26,3	73,7	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	42,1	30,5	26,3	1,1	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	31,6	22,1	28,4	15,8	2,1	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	33,7	25,3	27,4	11,6	2,1	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	20,0	4,2	5,3	17,9	51,6	1,1	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	42,1	28,4	10,5	14,7	4,2	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	11,6	6,3	5,3	14,7	62,1	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	13,7	2,1	5,3	3,2	73,7	2,1	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	17,9	8,4	11,6	16,8	44,2	1,1	100,0
Hizkuntza kuttuna	21,1	15,8	17,9	28,4	15,8	1,1	100,0
Identitate nazionala	29,5	16,8	44,2	5,3	0,0	4,2	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	36,8	23,2	21,1	10,5	8,4	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	30,5	31,6	18,9	17,9	1,1	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	18,9	23,2	31,6	21,1	5,3	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	1,1	24,2	43,2	27,4	3,2	1,1	100,0

## Gizonezkoak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	100,0	0,0	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	15,0	32,5	52,5	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	45,0	50,0	1,3	2,5	1,3	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	16,3	83,8	0,0	100,0		
	D eredia	B eredia	A eredia	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	40,0	43,8	16,3	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	25,0	31,3	31,3	11,3	1,3	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	27,5	35,0	28,8	7,5	1,3	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	17,5	2,5	13,8	21,3	45,0	0,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	53,8	27,5	7,5	10,0	1,3	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	11,3	7,5	5,0	18,8	57,5	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	12,5	3,8	2,5	6,3	72,5	2,5	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	18,8	8,8	13,8	16,3	42,5	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	21,3	11,3	15,0	33,8	17,5	1,3	100,0
Identitate nazionala	23,8	18,8	42,5	8,8	0,0	6,3	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	32,5	28,8	18,8	11,3	8,8	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	17,5	31,3	23,8	25,0	2,5	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	10,0	20,0	31,3	30,0	8,8	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	2,5	22,5	47,5	23,8	2,5	1,3	100,0

## Emakumezkoak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	0,0	100,0	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	9,2	29,9	60,9	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	57,5	36,8	2,3	3,4	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	25,3	74,7	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	48,3	28,7	21,8	1,1	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	40,2	29,9	19,5	8,0	2,3	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	44,8	33,3	13,8	5,7	2,3	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	23,0	9,2	4,6	23,0	39,1	1,1	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	56,3	20,7	8,0	11,5	3,4	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	16,1	6,9	10,3	17,2	49,4	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	18,4	2,3	6,9	4,6	64,4	3,4	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	21,8	10,3	10,3	16,1	40,2	1,1	100,0
Hizkuntza kuttuna	23,0	13,8	25,3	21,8	12,6	3,4	100,0
Identitate nazionala	28,7	20,7	39,1	4,6	1,1	5,7	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	43,7	23,0	21,8	5,7	4,6	1,1	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	34,5	33,3	18,4	11,5	1,1	1,1	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	20,7	25,3	31,0	14,9	6,9	1,1	100,0
Hautematea: euskararen egoera	2,3	31,0	37,9	25,3	2,3	1,1	100,0

## Euskaraz oso ongi mintzatzen direnak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	36,4	63,6	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	20,0	25,5	54,5	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	90,9	9,1	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	9,1	90,9	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	81,8	10,9	7,3	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	83,6	16,4	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	52,7	14,5	9,1	12,7	10,9	0,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	76,4	9,1	7,3	7,3	0,0	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	40,0	18,2	12,7	16,4	12,7	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	41,8	7,3	10,9	7,3	32,7	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	52,7	16,4	9,1	7,3	14,5	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	58,2	12,7	18,2	1,8	9,1	0,0	100,0
Identitate nazionala	49,1	29,1	16,4	1,8	3,6	0,0	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	70,9	21,8	5,5	1,8	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	45,5	32,7	12,7	9,1	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	30,9	38,2	20,0	10,9	0,0	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	1,8	20,0	34,5	38,2	3,6	1,8	100,0

## Nahiko ongi mintzatzen direnak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	49,0	51,0	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	11,8	47,1	41,2	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	41,2	58,8	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	23,5	76,5	0,0	100,0		
	D eredia	B eredia	A eredia	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	35,3	54,9	9,8	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	21,6	62,7	15,7	0,0	0,0	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	9,8	3,9	15,7	31,4	37,3	2,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	54,9	31,4	2,0	9,8	2,0	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	2,0	3,9	11,8	21,6	60,8	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	3,9	2,0	3,9	7,8	74,5	3,9	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	7,8	13,7	17,6	13,7	45,1	2,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	9,8	15,7	29,4	33,3	9,8	2,0	100,0
Identitate nazionala	17,6	19,6	47,1	3,9	2,0	9,8	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	35,3	25,5	29,4	3,9	5,9	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	23,5	29,4	27,5	17,6	2,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	9,8	23,5	33,3	19,6	13,7	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	3,9	33,3	43,1	15,7	3,9	0,0	100,0

Erdaldunak<sup>5</sup>

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	57,4	42,6	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	4,9	23,0	72,1	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	24,6	60,7	4,9	8,2	1,6	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	29,5	70,5	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	18,0	42,6	37,7	1,6	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	0,0	0,0	68,9	26,2	4,9	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	6,6	26,2	44,3	18,0	4,9	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	0,0	0,0	3,3	23,0	73,8	0,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	36,1	31,1	13,1	14,8	4,9	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	0,0	0,0	0,0	16,4	83,6	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	1,6	0,0	0,0	1,6	95,1	1,6	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	1,6	0,0	9,8	26,2	62,3	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	0,0	9,8	14,8	45,9	24,6	4,9	100,0
Identitate nazionala	13,1	11,5	57,4	13,1	0,0	4,9	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	11,5	29,5	26,2	18,0	13,1	1,6	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	11,5	34,4	23,0	26,2	3,3	1,6	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	6,6	8,2	39,3	34,4	9,8	1,6	100,0
Hautematea: euskararen egoera	1,6	27,9	49,2	19,7	0,0	1,6	100,0

<sup>5</sup> Hiru jende-mota sartzen dira multzo honetan: 1) euskaraz zertxobait dakitenak, 2) hitz batzuk dakizkitenak eta 3) batere ez dakitenak.

## “D” ereduak<sup>6</sup>

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	43,2	56,8	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	10,8	35,1	54,1	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	74,3	25,7	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	10,8	89,2	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	60,8	24,3	12,2	2,7	0,0	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	59,5	27,0	13,5	0,0	0,0	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	35,1	10,8	12,2	14,9	27,0	0,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	74,3	16,2	4,1	5,4	0,0	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	31,1	12,2	10,8	17,6	28,4	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	29,7	5,4	6,8	6,8	51,4	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	36,5	14,9	13,5	14,9	20,3	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	45,9	10,8	20,3	17,6	5,4	0,0	100,0
Identitate nazionala	41,9	21,6	29,7	4,1	0,0	2,7	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	58,1	27,0	12,2	0,0	2,7	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	36,5	32,4	20,3	10,8	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	23,0	32,4	25,7	16,2	2,7	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	5,4	23,0	33,8	33,8	2,7	1,4	100,0

<sup>6</sup> Lehen Hezkuntzako ikasketak euskaraz (gehienbat) egin dituztenak dira horiek.

"B" eredukoak<sup>7</sup>

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	58,3	41,7	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	20,0	31,7	48,3	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	41,7	58,3	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	18,3	81,7	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	10,0	46,7	40,0	3,3	0,0	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	23,3	40,0	31,7	5,0	0,0	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	5,0	3,3	10,0	38,3	41,7	1,7	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	50,0	35,0	3,3	10,0	1,7	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	0,0	3,3	6,7	25,0	65,0	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	3,3	1,7	1,7	5,0	81,7	6,6	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	10,0	3,3	15,0	16,7	53,3	1,7	100,0
Hizkuntza kuttuna	5,0	16,7	21,7	35,0	16,7	5,0	100,0
Identitate nazionala	13,3	20,0	48,3	8,3	1,7	8,3	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	23,3	30,0	25,0	15,0	6,7	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	16,7	35,0	21,7	23,3	3,3	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	6,7	16,7	35,0	30,0	11,7	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	0,0	30,0	50,0	20,0	0,0	0,0	100,0

<sup>7</sup> Lehen Hezkuntzako ikasketak euskaraz eta gaztelaniaz erdibana egin dituztenak dira horiek.

## “A” eredukoak<sup>8</sup>

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	40,6	59,4	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	0,0	21,9	78,1	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	18,8	53,1	9,4	15,6	3,1	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	50,0	50,0	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	0,0	0,0	100,0	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	12,5	15,6	28,1	34,4	9,4	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	9,4	40,6	18,8	21,9	9,4	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	15,6	0,0	0,0	9,4	75,0	0,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	21,9	21,9	21,9	25,0	9,4	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	0,0	3,1	3,1	6,3	87,5	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	6,3	0,0	6,3	3,1	81,3	3,1	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	3,1	9,4	3,1	18,8	65,6	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	0,0	9,4	18,8	37,5	31,3	3,1	100,0
Identitate nazionala	15,6	15,6	50,0	9,4	0,0	9,4	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	21,9	15,6	28,1	15,6	15,6	3,1	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	21,9	25,0	21,9	25,0	3,1	3,1	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	15,6	12,5	34,4	21,9	12,5	3,1	100,0
Hautematea: euskararen egoera	0,0	31,3	46,9	12,5	6,3	3,1	100,0

<sup>8</sup> Lehen Hezkuntzako ikasketak gaztelaniaz (gehienbat) egin dituztenak dira horiek.

## Euskaraz beti egiten dutenak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	44,1	55,9	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	32,4	17,6	50,0	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	88,2	11,8	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	5,9	94,1	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	79,4	17,6	2,9	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	85,3	11,8	2,9	0,0	0,0	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	76,5	20,6	2,9	0,0	0,0	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	50,0	17,6	11,8	5,9	14,7	0,0	100,0
Kuadrillako lagun euskarazko gaitasuna	82,4	11,8	2,9	2,9	0,0	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	47,1	11,8	14,7	17,6	8,8	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	50,0	5,9	2,9	8,8	32,4	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	64,7	11,8	14,7	5,9	2,9	0,0	100,0
Identitate nazionala	52,9	26,5	14,7	0,0	0,0	0,0	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	73,5	23,5	2,9	0,0	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	47,1	38,2	8,8	5,9	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	29,4	41,2	20,6	8,8	0,0	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	2,9	35,3	23,5	32,4	2,9	2,9	100,0

## Euskaraz gehienetan egiten dutenak

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	43,8	56,3	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	6,3	43,8	50,0	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	75,0	25,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	18,8	81,3	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	68,8	12,5	18,8	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	56,3	43,8	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	62,5	37,5	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	62,5	0,0	6,3	18,8	12,5	0,0	100,0
Kuadrillako lagun euskarazko gaitasuna	75,0	12,5	6,3	6,3	0,0	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	18,8	25,0	12,5	18,8	25,0	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	31,3	12,5	12,5	0,0	43,8	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	37,5	31,3	31,3	0,0	0,0	0,0	100,0
Identitate nazionala	56,3	25,0	18,8	0,0	0,0	0,0	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	81,3	12,5	6,3	0,0	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	56,3	18,8	18,8	6,3	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	37,5	37,5	12,5	6,3	6,3	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	0,0	0,0	50,0	37,5	12,5	0,0	100,0

Erdaraz egiten dutenak<sup>9</sup>

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	50,0	50,0	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	6,9	33,6	59,5	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	37,1	55,2	2,6	4,3	0,9	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	25,9	74,1	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	31,0	44,0	24,1	0,9	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	14,7	33,6	35,3	13,8	2,6	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	20,7	37,9	29,3	9,5	2,6	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	6,0	3,4	8,6	27,6	53,4	0,9	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	44,8	28,4	9,5	13,8	3,4	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	3,4	3,4	5,2	18,1	69,8	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	3,4	0,9	4,3	5,2	82,8	3,5	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	0,0	0,0	17,2	23,3	59,5	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	7,8	10,3	20,7	37,1	20,7	3,5	100,0
Identitate nazionala	14,7	17,2	50,9	9,5	0,9	6,9	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	22,4	27,6	27,6	12,1	9,5	0,9	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	16,4	32,8	25,0	22,4	2,6	0,9	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	8,6	15,5	37,1	27,6	10,3	0,9	100,0
Hautematea: euskararen egoera	2,6	27,6	47,4	20,7	0,9	0,9	100,0

<sup>9</sup> Hiru jende-mota sartzen dira multzo horretan: 1) bi hizkuntzetan berdin mintzatzen direnak, 2) gehienetan gaztelaniaz egiten dutenak, eta 3) beti gaztelaniaz egiten dutenak.

## Euskara ama-hizkuntza<sup>10</sup>

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	35,7	64,3	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	19,0	26,2	54,8	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	11,9	88,1	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	81,0	7,1	11,9	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	88,1	11,9	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	78,6	21,4	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	78,6	21,4	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	69,0	11,9	9,5	9,5	0,0	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	47,6	21,4	11,9	7,1	11,9	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	59,5	9,5	16,7	9,5	4,8	0,0	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	54,8	23,8	9,5	7,1	4,8	0,0	100,0
Hizkuntza kuttuna	71,4	14,3	9,5	2,4	2,4	0,0	100,0
Identitate nazionala	52,4	33,3	11,9	0,0	0,0	2,4	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	81,0	16,7	2,4	0,0	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	50,0	35,7	7,1	7,1	0,0	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	33,3	42,9	14,3	7,1	2,4	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	2,4	14,3	38,1	42,9	2,4	0,0	100,0

<sup>10</sup> "Euskara ama-hizkuntza" izateak guretzat hau esan nahi du: 1) inkestatuak ama euskalduna du eta 2) euskara 0 eta 3 urte bitarteko adinean jaso du.

## Euskara bigarren hizkuntza: 0 eta 3 urte bitarteko adinean jasoa<sup>11</sup>

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	EE	Guztira		
Sexua	47,7	52,3	0,0	100,0		
	13-14	15-18	19-24	EE	Guztira	
Adin-multzoa	11,4	36,4	52,3	0,0	100,0	
	0-3	4-16	17-24	Ikasi ez	EE	Guztira
Euskara noiz ikasia	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bai	Ez	EE	Guztira		
Eskolaz kanpo ikasia	18,2	81,8	0,0	100,0		
	D eredua	B eredua	A eredua	EE	Guztira	
Lehen hezkuntza	47,7	50,0	2,3	0,0	100,0	

	+	>	=	<	-	EE	Guztira
Euskarazko gaitasuna	29,5	36,4	27,3	6,8	0,0	0,0	100,0
Euskarazko alfabetatzea	36,4	34,1	27,3	2,3	0,0	0,0	100,0
Amaren euskarazko gaitasuna	0,0	0,0	22,7	38,6	38,6	0,0	100,0
Kuadrillako lagunen euskarazko gaitasuna	59,1	29,5	2,3	9,1	0,0	0,0	100,0
Barneko hizkuntza	4,5	4,5	18,2	25,0	47,7	0,0	100,0
Amarekiko hizkuntza	0,0	0,0	2,3	4,5	88,6	4,6	100,0
Lagun euskaldunekiko hizkuntza	15,9	4,5	20,5	9,1	47,7	2,3	100,0
Hizkuntza kuttuna	9,1	13,6	29,5	29,5	13,6	4,5	100,0
Identitate nazionala	20,5	15,9	50,0	6,8	0,0	6,8	100,0
Iritzia: euskalduna izateko euskaraz jakin beharra	40,9	29,5	15,9	6,8	6,8	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz jakin beharra	27,3	31,8	18,2	20,5	2,3	0,0	100,0
Iritzia: denok euskaraz hitz egin beharra	13,6	20,5	34,1	22,7	9,1	0,0	100,0
Hautematea: euskararen egoera	6,8	29,5	45,5	13,6	2,3	2,3	100,0

<sup>11</sup> Kategoria horretan sartuko lirateke , ama erdalduna izanik, euskara 0 eta 3 urte bitarteko adinean jasota dutenak.





**III. ATALA: GERTATZEN ARI DENARI  
ETA GERTA DAITEKEENARI BURUZKO  
HAUSNARKETA**

Gazte euskaldunen kopurua ez da makala Lasarte-Orian, %63,4koa baita. Euskaldun horiek guztiak, gainera, alfabetatuak dira. Ez hori bakarrik. Bada multzo txiki bat, %17,4koa, zeinek, euskaraz mintzatzeko gauza ez izan arren, ulertu behinik behin ondo edo nahiko ondo egiten baitu. Eskolak horretan guztian izan duen zerikusia ere ez da makala. Gogoratu beharra dago, esaterako, B eta D irakastereduetan heziak direla gazteen %80,2, eta horrek argiro adierazten du eskolan euskarazko ereduek izan duten zabalte orokorra.

Beste modu batera esanda, baldin eta arrotz bat Lasarte-Oriara etorriko balitz eta zoriz hautatutako hamar gazterekin euskaraz egingo balu, orduan:

- 1) Hamarretatik zortzik arazorik gabe ulertuko liokete.
- 2) Hamarretatik seik euskaraz erantzungo liokete (nahi izanez gero, jakina).
- 3) Hamarretatik bik ez liokete ulertuko eta erdaraz erantzungo lukete.

Kondizio horiek ez dira nolanhikoak euskararen normalizaziorako, ez horixe! Pentsa zitekeen, teorian behinik behin, ez lukeela Lasarte-Orian gazte-giroan euskaraz egin nahi duenak aparteko eragozpenik izan beharko bere nahia gauzatze aldera.

Hala ere, praktikan, euskararen erabilerak ez du gazte-sareetan %30 baizik hartzen. Erabilera eskasa da, egia esan, kanpoko kondizio objektiboek eskaintzen dutena kontuan harturik. Zer ari da gertatzen?

## **Gaitasun erlatiboa**

Lehendabizi, euskaldunen gaitasun erlatiboari begiratu behar diogu. Esana dugu %63,4 euskaldunak direla, baina ez dute denek, ez horixe!, mintzatzeko erraztasun bera. Multzo horretatik erdiek dute erraztasun handia euskaraz hitz egiteko; hots, ez dute eragozpen nabarmenik, erraz, berez eta jarioz egiten dute, gutxienik gaztelaniaz bezain ondo eta erraz egiten dute. Beste erdiak, berriz, moldatzen dira euskaraz, nahiko ongi egiten dute, baina badituzte oraindik eragozpenak, jarioa ez dute etengabe eta berezkoa, hainbatetan ahaleginak egin behar dituzte nahi dutena ongi adierazteko, maiz gaztelaniaren makulua hartu beharko dute oztopoak gainditzeko; hitz batez, euskaraz moldatu arren, gaztelaniaz askoz hobeto egiten dute.

Nola lehenengoak, euskaraz gutxienik ere gaztelaniaz bezain ondo dakitelako, har baitaitezke elebidun orekatutzat<sup>12</sup> bederen (edo euskal elebiduntzat<sup>13</sup>, euskaraz gaztelaniaz baino errazago egiten dutenen kasuan), hala bigarrenak hartu beharko lirатеke erdal elebiduntzat<sup>14</sup>, zeren, gaztelaniaz oso ondo egiten dutelarik, euskaraz nabarmenki traketsago ibiltzen baitira. Pertsona bat, hizkuntzen artean aukera dezakeenean, "erraztasunaren printzipioa"ri lotuko zaio, besteak beste.

Horren arabera, energia-xahutze gutxiago eskatzen dion hizkuntza lehenetsiko eta aukeratuko du, eta hori gaztelania da erdal elebidunen kasuan. Erdal elebidun gehienen joera, lan honetako datuetan ikusi dugunez, lagunekin gaztelania erabiltzekoa izango da. Berez, ez dute euskaraz aritzeko grinarik izango, non eta ez dituzten kanpotik nolabait behartzen; esaterako, solaskideak euskarari eusten dionean. Joera nagusi horretatik landa, badira gutxi batzuk horrela jokatzen ez dutenak eta euskaraz aritzen direnak. Ez dakigu, ordea, berezko joera den ala kanpoaldeak (lagunek, solaskideek...) bultzatua. Bietatik izango da, seguru asko, baina hori guztia kasuistikaren barruan sartzen da. Ildo, bide eta joera nagusia, ordea, gaztelania aukeratu eta erabiltzekoa da.

Elebidun orekatuen (eta euskal elebidunen) joera nagusia, berriz, euskara aukeratu eta erabiltzekoa da. Badira horietan ere salbuespenak eta hondarrak, baina zalantzarik ez da ezen hamar elebidun orekatu edo euskal elebidunetatik zortzik euskara aukeratzen eta erabiltzen dutela. Horien kasuan, "erraztasunaren printzipioa", oro har, ez da determinantea, zeren, gaztelaniaz bezala euskaraz ere, erraz eta energia gutxiz egin baitezakete (ia kasu guztietan). Orduan, bestelakoak dira hizkuntza bata edo bestea aukeratzera eta erabiltzera bultzatuko dutenak. Taldeko identitateak eta hizkuntzarenganako sentimenduak, biek izango dute orduan berebiziko garrantzia. Nork bere burua, buruz bezala bihotzez ere, euskalduntzat hartu izanak makurtuko du balantza euskararen aldera. Euskaraz hitz egin ohi duten gehien-gehienek euskara eta Euskal Herria besterik ez dute maite, edo, bederen, haiek maite dituzte nagusiki.

Uste dugu ezen, bai erdal elebidunen euskarazko erraztasun ezak, bai elebidun orekatuen (eta euskal elebidunen) euskararenganako atxikimendu eta maitasunak, biek dutela zerikusi handiagoa etxearekin ezen ez eskolarekin. Argi dezagun kontua, erdal elebidunengandik hasita.

---

<sup>12</sup> Termino hori *Euskararen jarraipena* (Eusko Jaurlaritza, 1995) lanean dator definitua.

<sup>13</sup> Termino hori *Euskararen jarraipena* (Eusko Jaurlaritza, 1995) lanean dator definitua.

<sup>14</sup> Termino hori *Euskararen jarraipena* (Eusko Jaurlaritza, 1995) lanean dator definitua.

## Etxea eta eskola

Datuetatik, badakigu erdal elebidun gehien-gehienek ama erdalduna dutela. Ondoriozta ere dezakegu, beraz, oker handirik egin gabe, ezen etxeko hizkuntzazko giroa gaztelaniazkoa dutela. Ildo beretik, esan liteke gazte horiek gaztelania izan dutela lehen hizkuntza; amarengandik jasotako hizkuntza, alegia. Haientzat, etxea ez da izan euskarazko gune bat. Han ez dute euskarazko praktikarik egin. Ez dute euskara bizi bere egiteko informal eta afektiboetan. Horren guztiaren faltan, eskolak lagundu egin du haien euskalduntzea aurrera eramaten, baina ez du etxeak utziriko hizkuntzazko hutsunea estaltzeko adinako indarririk izan. Etxekoen eta bereziki amaren euskarazko bizipena eta praktika faltan izan duten gehien-gehienak erdal elebidun bihurtu dira, baldin eta eskolatzea euskarazko ereduetan egin badute. Oso gutxi izan dira, ordea, elebidun orekatuen mailara iritsitakoak. Ez ginateke oker ibiliko baieztatuko bagenu etxea dela hizkuntzazko sena, jarioa, aberastuna eta erraztasuna eskuratzeko berezko tokia. Eskolak ezin du bere ahalegin hutsez etxeak eman ez duena estali eta ordezkatu.

Era berean, badakigu euskal elebidun eta elebidun orekatu gehien-gehienek, euskarazko ereduetan eskolatu ez ezik, ama ere euskalduna dutela. Etxea izan dute, urte luze eta garrantzitsuetan, euskara elikatzeko iturri nagusia. Han jaso dute euskarazko praktika ugari eta aberatsa. Haien bizitza afektibo guztia euskararen garapenarekin batera joan da. Bere egin dute euskarazko sena eta erraztasuna. Euskararekin identifikatzen eta hura maitatzen ikasi dute, berez eta erraz. Amak haurrarekin izaniko hizkuntzazko jokaerak ez du landu haurraren hizkuntzazko gaitasuna eta erraztasuna soilik, baina bai eta hizkuntzarenaganako sentimendua, atxikimendua eta identitatea ere. Euskarazko eskolatzeak, ondoren, etxearen kimua garatu, zabaldu eta bururaino eraman baino ez du egingo. Eskolak euskal elebidunak edo elebidun orekatuak sortuko ditu, noiz eta atzean sendoa eta tinkoa baita etxearen euskarazko eragina eta, ororen gainetik, amaren euskarazko jokaera. Hitzun horiek, oro har, euskara hautatuko eta erabiliko dute beren harremanetan, aukera egin dezaketenean.

Etxea eta eskola dira haurtzaroko harreman sozialen bi sare nagusiak. Hitzunen erraztasuna, jarrera eta jokaera ikusita, baieztatu dezakegu etxeak eskolak baino eragin sakonagoa duela hizkuntzazko kontuetan. Hala ere, etxearen eragina guztiz moteldua edo indargabetua gera liteke baldin eta inguruan eskolaren babesa eta sostengua izango ez balitz. Batak eta besteak elkarren beharra dute, baina, haien arteko harremanetan, etxea funtsezkoa den bitartean, eskola osagarria da, gure ustez.

Gizarteko egiturak ere ez dira finkoak, ezta gutxiago ere. Eta aldatzen ari den gauzetako bat, hala iruditzen zaigu guri, familiak berak hizkuntza (eta beste gauza asko) transmititzeko duen indarra da (denboran eta intentsitatean neurtua). Familiaren ordeztasunaren arazoak dira telebistako orduak, zaintzaileak, interneta... Kasu bakoitzean, ezberdinak

izango dira transmisiorako mekanismoak, eta gu ez gara iritsi gizarteko aldaketa horiek hizkuntzazko gaitasunak, jarrerak eta jokaerak finkatzean duten eragina neurtzera, ez eta sorrarazi dituzten aldaketak zehaztera ere. Hala ere, ikerketa honetan ateratako ondorio orokorrak, gizarteko aldaketak gorabehera, baliagarriak dira bere orokortasunean.

## Lagunartea eta eskola

Kalean, baina egun oso nabarmen eskoletan, haurren arteko sare horizontalak osatzen hasten dira. Gelakideen artean, taldetxoak sortzen dira, eta horietako asko izango dira geroko kuadrilla askoren abiapuntua. Baina ez dezagun ahatz hizkuntzazko erraztasuna bera dela taldetxoak osatzean zerikusi nabarmena duen aldagaietako bat. Euskaraz erraz moldatzen direnek (etxeakoaren fruitu) berezko joera izango dute berak bezala euskaraz erraz moldatzen direnekin aritzeko. Taldetxo horiek finkatzen diren neurrian, maiztu egiten da haien arteko harremana: atsedendietan, parkeetan, aisialdian. Harreman sozialen hirugarren sarea osatzen ari da, eta hori ere euskaraz. Lagunartean euskaraz egitea ohiturazkoa, berezkoa eta erraza izango da. Hortik sortzen dira, gehien-gehienbat, geroko euskal elebidunak eta elebidun orekatuak.

Hizkuntzazko erraztasuna taldeak sortzeko bultzagile bakarra ez denez gero, litekeena da, bestalde, talde horien baitan euskaraz aritzeko erraztasun handirik ez dutenak ere izatea. Baldin eta horiek euskaraz erraz egiten dutenen aldean gutxi badira, orduan, euskararen aldera makurtuko dira. Horrela, euskarazko harremanen sare batean murgilduko dira, eta erraztasuna eta maitasuna eskuratuko dituzte. Hitz batez, etxeak eskaini ez zizkien euskarazko elikagaiak haurren arteko harremanen sareak eskaini liezazkieke. Horiek ere elebidun orekatu bilakatuko dira kasurik gehienetan.

Bestaldean ditugu etxean euskara jaso ez duten haurrak. Euskarazko erraztasuna mugatua dute oso, eta, joeraz, taldeak osatzean, berak bezala gaztelaniaz aritzen direnei hurbilduko zaizkie. Harreman-sare horietan, gaztelania izango da hizkuntza aukeratua. Maisu-maistrek antolatutako hainbat jarduera formaletan, euskara erabiliko dute, baina, handik kanpo, eta bereziki lagunen arteko harreman informaletan, gaztelania aukeratuko dute.

Harreman hori parkera eta kalera zabalduko dute, taldetxoak finkatuz doazen neurrian. Lagunarteko sare horiek gaztelaniazkoak izango dira, eta bigarrenaz galduko dute euskararen berezko elikagaia jasotzeko aukera; hots, erregistro informalak, erraztasuna, maitasuna eta ohitura. Lehenengo aukera galdua etxekoa izan zen. Beraz, ez etxean, ez lagunartean, ez dute euskarazko praktika berezkorik jasoko. Eskola bakarrik gelditzen zaie euskarazko iturri, baina haren alderdirik formalenetik baino ez dute edango. Nekez iritsiko dira horiek elebidun orekatuak izatera. Kasu gehienetan, erdal elebidun

bihurtuko dira, eta ez dute ez erraztasunik, ez ohiturarik, ez sarerik, ez joerarik izango euskaraz egiteko.

Batzuetan, murgiltzen dira talde horietan haur euskaldunen batzuk ere (euskara etxean jaso dutenak). Horrelakoetan, sarearen gaztelaniazko inertziak gaztelania hartzera eramango du euskalduna. Badu horrek, hala ere, zerbait bere alde; hots, etxean jaso zuela euskarazko berezko elikagaia, eta, ondorioz, etxearen eta eskolaren eraginez, elebidun orekatua izatera iristeko aukerak dituela. Hala ere, hizkuntzako jokaerari dagokionez, gaztelaniazkoa izango du seguru asko, gaztelaniazkoa baitu egina lagunarteko sarea.

Eskola, beraz, toki aparta dugu lagunarteak edo harreman-sare horizontalak osatzeko. Eta hori, egun, inoiz baino halaxeago da, zeren kaleak indarra galdu baitu sare horizontalak osatzeko egitekoan. Egun, haurrak txikitatik daude eskola-giroan murgilduta. Gertaera soziologiko ukaezina dugu hori. Baina, era berean, aztertu dugu nola etxeko hizkuntzako eraginak, haurrak bere baitan daraman hizkuntzako erraztasunaren eta joeraren bidez, nabarmen jokatzen duen lagunarteak osatzeko garaian. Gertaera hori psikolinguistikoa da.

## **Gainerako harreman-sareak**

Lagunartek aurrera egingo dute, eta, denbora pasatu ahala, gero eta garrantzi handiagoa izango dute haurren bizimoduan. Nerabezaroan, handitu egingo da presentzia, eta eragin nabarmena izango du gaztaro osoan. Lagun-sareak gehiago edo gutxiago aldatuko dira denboraren joanean, baina muin batek –haurtzarotik datorren muin batek, alegia– irauin egiten du gehienetan. Gaztarora iritsi den muin horrek haurtzaroan finkatu zituen hizkuntzako harremanak; hain justu, etxekoen eragina oso nabarmena zen garaian. Seguru asko, horrexegatik ikusi dugu, datuetan, oso antzekoak direla gazteek amarekin erakusten duten hizkuntzako jokaera eta lagunekin erakusten dutena. Beste era batera esanda, amarekin euskaraz egin ohi duten gehien-gehienek lagunekin ere euskaraz egiten dute kalean direnean. Bai eta alderantziz ere, amarekin gaztelaniaz egiten dutenean.

Litekeena da, behin lagunarteak euskarazko edo gaztelaniazko ildo batean murgilduz gero, hura finkatzea eta etengabe erreproduzitzea, kideak aldatuta ere. Pentsatzekoa da euskaraz diharduen sare batekoek beste euskaldun batzuekin ere harremanetan jarduteko joera izango dutela. Sare txikien inguruan, sare handixeagoak sortzen dira, eta ez da harritzekoa lagunarte berriak sortzea, osoki edo partzialki berriak.

Baina, kideak aldatuta ere, badira denboran irauten duten kontu batzuk, eta horietako bat hizkuntza dela deritzogu.

Badakigu hori ez dela beti horrela gertatzen, sareko hizkuntza alda baitaiteke indar handiek talka egiten dutenean (horretan, izugarrizko garrantzia izango du pertsona hori bizi den gune soziolinguistikoko eta haren gertuko harreman-sareetako euskaldunen dentsitateak), baina, hori gertatu ezean, hizkuntzak badu halako indar eta inertzia bat, sareko kideen gainean berezko bizia duena. Beste era batera esanda, gure gaurko ohiturak biharko jarduera markatzen digu. Hori horrela, haurtzaroan euskarazko sareetan murgildutako haurrek berez, erraz eta automatikoki bilatuko dituzte gaztetan ere euskarazko sareak, joera gisa, eta gaztetan egindako horrek berezko inertzia ekarriko du helduaroan ere. Inertzia horrek, jakina, gorabeherak izan ditzake; ez da lineala eta beti berdina. Nerabezaroan, esaterako, bada gaztelaniaz aritzeko joera ezagun bat, haurtzaroan euskarazko sareetan ibilitako batzuen aldetik. Baina, handik puska handiago edo txikiago batera, haietako asko itzultzen dira euskarazko jokiaerara.

Euskarazko sare horizontaletan murgilduriko haur-gazteek ez diote horregatik gaztelania behar bezala ikasteari utziko. Hamaika bide izango ditu gaztelaniarekin erlazionatzeko, hizkuntza hori kalean eta gizartean gailendua eta guztiz normalizatu dagoen neurrian.

Gaztaroan, berebiziko garrantzia hartuko dute sare horizontalek, haurtzaroan baino askoz ere handiagoa. Honako sare hauek oso nabarmenak dira:

- 1) Herriko lagunartea
- 2) Ikaskideen ingurua (ikasle izanez gero)
- 3) Lankideen ingurua (lanean arituz gero)
- 4) Bikotea
- 5) Kiroleko, politikako, kulturako... elkartekideen ingurua

Bizitza soziala zabalduz eta korapilatuz doan neurrian, harreman-sareak irekiago eta ugariago egiten dira. Hiztun-motak gehiago nahastuko dira eta, honezkero, erdal elebidunek garbi egingo dute gaztelaniaren aldera. Euskarazko sareetan gizarteratutako gazteek euskaraz bezain ondo egingo dute gaztelaniaz, eta hortaz, hizkuntza bata zein bestea aukera dezakete. Harreman-sareak korapilatuz doazen heinean, ezin da beti eta denekin hizkuntzazko jokaera bera eraman.

Orain, euskaraz egin nahi duenak erne ibili beharko du jakiteko noiz dauden kondizio egokiak euskaraz hitz egiteko eta noiz ez. Orain, hizkuntzazko jokaera arduratsua erakutsi behar du euskaraz egin nahi duenak, baina, zorionez, halakoxeak dira elebidun orekatu eta euskal elebidun gehienak. Datuek diotenez, hamar elebidun orekatu eta euskal elebidunetatik zortzik erabiltzen dute euskara solaskideei kondizio egokiak

antzematen dizkietenean. Hala ere, badago galera bat horretan. Hautzaroko sare egonkor, itxi eta iraunkorrak jada ez dira; orain, sare zabal, mugikor eta korapilatuak ditugu. Ez zaio beti erraza izango euskaldunari euskaraz norekin hitz egin ahal dezakeen determinatzea. Sareak lehen baino nahasiagoak dira orain hizkuntzaren aldetik (horretan ere egundoko garrantzia izango du euskaldunen dentsitateak, bai pertsona hori bizi den gune soziolinguistikokoak, bai haren gertuko harreman-sareetakoak).

## Gazteak guraso izatera heltzen direnean

Eskolak guztiz euskalduntzea lortu ez zituen erdal elebidun horiek are gehiago galduko dute euskarazko gaitasuna, ziurrenik, gaztaroan eta helduaroan, haien euskarazko praktika ordukoa baino askoz ere txikiagoa izaten baita. Zer gertatuko da horrelako neska-mutilekin aita-ama bihurtzean? Euskaraz egingo al diete seme-alabei etxean? Gauza izango ote dira familia berriz ere euskararen txoko bezala pizteko? Gauza izango ote dira berek etxetik jaso ez zutena beren seme-alabei transmititzeko? Hizkuntza transmititzeko berezko mekanismoa abia ote daiteke berriro?

Ez dugu uste hori era zabal batean gertatuko denik, kasu gutxi batzuk izan badaitezke ere, zeren ez baitute euskarazko erraztasun nahikorik izango halako harreman biziari eusteko. Eskola bukatu eta erraztasun mugatua eskuratu zuten horiek are mugatuagoa izango dute gerora euskarazko gaitasuna, zeren hurrengo hamar, hamabost edo hogeitau urteetan hautzaroan baino dextente gehiago erabiliko baitute gaztelania eta, aldiz, haurretan baino askoz ere gutxiago entzungo eta hitz egingo baitute euskaraz kasu gehienetan (non eta ez diren bizi euskaldunen dentsitatea ordu artekoa baino handiagoa duten sareetan). Gaztelania inoiz baino sendoago eta euskara gero eta traketsago. Hortik abiatuta, nekez aukeratuko dute euskara seme-alabekin komunikatzeko.

Oso litekeena da inkestetan orain euskaraz “nahiko ongi” mintzatzen diren gazteak hain ongi ez mintzatzea hamar, hamabost edo hogeitau urte barru, gaitasuna kamustuz eta trakestuz joan zaielako. Guraso izateko tenorea iritsi zaienean, seguru asko, euskarazko tresneria ez dute koipeztua eta prestatua izango seme-alabei transmititzeko. Kasu gehienetan, horixe gertatzen da. Orain bai, ez dugu dudarik egiten, baldin erdal elebidun horiek, beren ibilbidearen ondorioz, guraso-garaira “nahiko ongi” gaitasun hori gordetzen dutela iritsiko balira, orduan aukera handia legokeela beren seme-alabei euskaraz egiteko. Hala ere, tamalez, horiek salbuespenak baizik ez dira izango ziurrenik.

Badirudi, ordea, elebidun orekatu eta euskal elebidun gehienek gaztaroko eta helduaroan urte luzeetan segitzen dutela euskara erabiltzen horretarako aukera dutenean. Euskarak bizirik dirau haien baitan, eta, hala, familia berriak egitean, ez bide

dute hutsik egingo beren ondorengoei euskara transmititzen eta harremanetako hizkuntza bihurtzen.

Gure suposizioa da ezen ama batek, baldin eta euskaraz “oso ongi” edo “nahiko ongi” moldatzen bada, euskaraz egingo diela bere seme alabei.

Garai batean, ez zen hain argia izango baieztapen hori, ohartuak baikin euskararen familia bidezko transmisioak huts egiten zuela hainbat eta hainbatetan. Egun, zorionez, badirudi joera hori gaindituta dagoela, bai bederen Gipuzkoan eta Lasarte-Orian. Suposizio horretan oin harturik, esan behar dugu, kezka-puntu batekin, ama euskaldunen kopurua ez dela aldatu 10 urtean Lasarte-Oriako udalerrian. Eta horrek esan nahiko luke etxea ez dela indartu euskarazko gune bezala; alegia, euskararen eragilerik handienetakoa ez dela bizkortu, hazi eta zabaldu. Seguru asko, horrexegatik ez da euskal elebidunen eta elebidun orekatuen kopurua kasik aldatu 10 urtean, eta baliteke horrek azaltzea zergatik ez den asko aldatu euskarazko erabilera kalean, lagun artean, zeren baitirudi lagun arteko euskarazko erabilera oso antzekoa dela etxeko euskarazko erabilerarekin.

	1992. urtean	2002. urtean
Ama euskaldunak	26,6	26,4
Euskaraz “oso ongi” mintzatzen diren gazteak	29,7	32,9
Lagunekin euskaraz egin ohi duten gazteak	23,5	30,0

Ez dugu eskolaren lana eta egitekoa gutxietsi nahi, ez horixe! Hura gabe, auskalo zer desagertze-puntutan legokeen euskara bera! Beraz, orain artekoari eutsi eta ahal dena hobetu beharko da, zer hobeturik bada eta. Baina pentsa dezagun baldintza hori honezkero finkoa dela eta, aldatzekotan, hobera egingo duela. Orduan, non bilatu behar dira gakoak, euskarazko erabilerak benetan aurrerapen nabarmena ezagutzeko?

## Etorkizunerako gakoak

Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarteko multzo handiek, eskolakoaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalean batean, dela talde hori familia den, dela sare

horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura.

Norbaitek euskararazko esperientzia funtsezko hori gurasoengandik etxean jaso badu, egina du orduan bide-erdia baino gehiago. Ondoren, eskolari esker eta beste inizatibaren baten laguntzaz osatuko du falta zaiona. Horrek, seguru asko, familia euskalduna osatuko du sasoian denean, eta euskararen soka luzeak ez du etenik izango.

Etxean halako hizkuntzazko oparirik eta elikaigarik jaso ez dutenek –alegia, Lasarte-Oriako gazte gehienek– zikiratua dute euskalduntzeko prozesua. Eskola bai, izango dute euskarazko gune; ez, ordea, berezko sareak, ez familia, ez lagunartekoa. Horrela, nekez iritsiko dira euskaldun gisa jokatzera. Horiek euskara jaso dute, baina ezaugarri formalez beterik; euskararen ezaugarri informal eta biziak falta zaizkie beren prozesua osatzeko eta burutzeko. Elikagai hori nola eman, hortxe dago esku-hartzearen gako nagusietako bat.

Elikagai hori jasotzeko aukera izan dutenak edota ahalegina egin dutenak, kasu batzuetan, elebidun orekatu bilakatuko dira, eta, beste batzuetan, “nahiko ongi” hitz egiteko gaitasunari luze eutsiko diote. Bai batzuetan, bai besteetan, familia euskaldunak osatuko dituzte tenorean daudenean, eta euskararen katea berriro osatuko da, datozen belaunaldiek euskara berezkoa izango baitute lehenengo hitzetik, seaskatik bertatik. Familia erdaldunetan haztea, eskolan eta lagunarteko sare batean euskaraz bizitzea eta, azkenik, familia euskalduna osatzea; horixe da elebidun horien ibilbide paradigmaticoa. Hemen, “lagunarteko sare batean euskaraz bizitzea” izango litzateke gakoa, zeren, hori lortu ezean, nekez gertatuko baita hurrengo urratsa –hots, familia euskalduna osatzea–.

**ERANSKINA: HITZ BATZUK  
IKERBIDEARI BURUZ**

## Sarrera

### Ondorio nagusiak

---

Ez da oso gai interesgarria izango datorren hau, ikertze-kontuetan ez dabilenarentzat. Zalantzarik gabe, hauxe duzue atalik teknikoena.

Atal honetan, hausnarketa batzuk egin nahi ditugu honelako ikerketak hobetzeko, hala informazioa jasotzerakoan nola hura interpretatzerakoan.

Hausnarketa gehienak, nola edo hala, honezkero agertu dira aurreko testuan, hizkuntzazko datuak aztertu ditugunean. Baina, orain, horiek ahal den neurrian bildu eta presentzia berezia eman nahi genieke.

Bereziki, lau hausnarketa hauek egin nahi ditugu: gure ustez...

- 1) Honelako estatistikak, modu matematikoan baino gehiago, modu kualitatiboan irakurri behar dira.
- 2) Euskalduna kontzeptua hertsiki erabili beharko genuke, aditzera emateko "euskaraz oso ongi mintzatzen diren" pertsonak eta ez besterik.
- 3) Ama-hizkuntza kontzeptua ere argi erabili beharko genuke, gogoan izateko "euskara amaren ahotik eta jaiotzetik bertatik jaso duten" pertsonak eta ez besterik. Beraz, hizkuntza zein adinetan jaso den bezain garrantzitsua da, edo agian are gehiago, amaren hizkuntza.
- 4) Lagunartea kategoria behar bezala aztertzeke, ez da nahikoa euskaldunen dentsitateaz galdetzea, zeren, euskaldun horien gaitasunaren kalitatearen berri jakin gabe, ezin baita inongo azterketa sendorik egin.

---

# 1. hausnarketa, honelako ikerketen kualitatibotasunaz

**Honelako estatistikak, modu matematikoan baino gehiago,  
modu kualitatiboan irakurri behar dira.**

---

Hona ekarri nahi dugun hausnarketaren aztergaia da ea zer neurritan islatzen duten zenbakiak errealitatea. Galdeketetan, subjektuen iritzietan oinarritzen gara. Zenbateraino dira egonkor, sendo eta iraunkor iritzi horiek? Erantzun berak jasoko ote genituzke bi galdeketa berdintsutan, bien artean denbora-tarte nabarmena izanez gero? Guk horixe egin dugu, eta emaitzek zer pentsatua ematen dute.

Galdeketa martxoan egin genuen. Handik zortzi hilabetera –azaroan–, haietako hamar lagun zoriz hautatu, eta ikerketa berezi batean hartu zuten parte. Berezia diogu zeren datuak jasotzeko bidea ez baitzen ohikoa. Izan ere, telefono mobil bana eman zitzaizen gure deiak jaso zitzaizen. Deiak jaso bezain laster idatzi behar zuten zein jarduera linguistikotan zebiltzan une horretantxe eta zein hizkuntzatan ari ziren.

Era horretan jakin ahal izan genuen harreman guztietatik zenbat ziren euskaraz eta zenbat erdaraz, senide, lagun, ezagun edo arrotzekin ari ote ziren, solaskideak euskaldunak ziren ala ez, zenbatetan ari ziren pentsatzen, hizketan, entzuten, irakurtzen eta idazten. Astebeteko epean, 30ren bat dei jaso zituen subjektu bakoitzak.

Bide hori erabilia, ez genuen subjektibitatea gaingiditzen, zeren subjektuek berek erregistratzen baitzuten beren jarduera, inongo ikerlariren presentzia zuzenik gabe, eta, hortaz, haiek aitortzen zutena baino ez genuen esku artean. Beraz, bai galdeketa, bai ikerbide berezian, subjektuen aitortzak jasotzen genituen, eta, alderdi horretan, biak erabilgarriak ziren subjektuen aitortzen sendotasuna alderatzeko.

Baziren bi atal guztiz ongi aldera zitezkeenak. Lehenengoa, lagun euskaldunekin erabilitako hizkuntza, eta, bigarrena, barneko hizkuntza. Subjektu bakoitzak galdeketa emaniko hitzezko erantzuna eta ikerbide berezian eskuratutako erregistroa aurrez aurre jarri genituen. Emaitzak hurrengo bi tauletan ematen dira ezagutzera, ongi ordenaturik.

***Euskaraz egiten al duzu lagun euskaldunekin?***

Tipologia	Kasua	Galdeketa esanikoa	Ikerbide berezian jasotakoa
1	1	Euskaraz erdaraz baino gehiago	90,0
	2	Beti euskaraz	80,0
2	3	Inoiz ez euskaraz	83,3
	4	Bietan berdin	100,0
3	5	Euskaraz erdaraz baino gehiago	10,0
	6	Beti euskaraz	50,0
4	7	Bietan berdin	0,0
	8	Bietan berdin	50,0
5	9	Erdaraz euskaraz baino gehiago	16,7
	10	Inoiz ez euskaraz	0,0

***Gogoeta egiteko, zein hizkuntza erabiltzen duzu?***

Tipologia	Kasua	Galdeketa esanikoa	Ikerbide berezian jasotakoa
1	1	Beti euskaraz	83,3
	2	Beti euskaraz	83,3
2	3	Inoiz ez euskaraz	0,0
	4	Beti euskaraz	100,0
3	5	Bietan berdin	37,5
	6	Erdaraz euskaraz baino gehiago	83,3
4	7	Inoiz ez euskaraz	0,0
	8	Bietan berdin	50,0
5	9	Inoiz ez euskaraz	0,0
	10	Inoiz ez euskaraz	0,0

Aurreko taulak sakon aztertuz gero, honako hiru egoera hauek aurkitzen ditugu:

- 1) Datuen arteko koherentzia handia: 8., 9. eta 10. kasuak
- 2) Datuen arteko koherentzia nahikoa: 1. eta 2. kasuak
- 3) Datuen arteko koherentzia txikia: 3., 4., 5., 6. eta 7. kasuak

Koherentzia handia dagoela esaten dugu galdeketaren bidez zein erregistroaren bidez datu berberak lortzen ditugunean.

Koherentzia nahikoa esatean, ordea, datuak oso antzekoak direla, joera bertsukoak direla adierazi nahi dugu. Eskalan, maila bateko aldea baino ez dago (esaterako, “beti” esan eta “gehienetan” gertatu).

Koherentzia txikia iruditzen zaigu datuek harritzen gaituztenean, eskalako maila bateko baino gehiagoko aldea dutenez gero (esaterako, “beti” esan eta “bietan berdin” gertatu).

Kontuan hartuta zientzia humano eta sozialetan gabiltzala eta, beraz, gureari ezin dakiokela zientzia matematikoen zehaztasuna eskatu, koherentzia handiko eta nahikoko kasuak batzeko eta onartzeko joera izango genuke. Beraz, koherentziatzko multzoan, hauek guztiak sartuko genituzke: 1., 2., 8., 9. eta 10. kasuak.

Bestalde, koherentzia txikiko kasuak ditugu: 3., 4., 5., 6. eta 7. kasuak. Zer egin horiekin? Zein datu-iturriri kasu egin? Zergatik?

Ezin diegu aurreko galderei taxuz erantzun, baina, argitasun bila abiatu nahian, jabe gaitezen honako kontu hauetaz: koherentziatzko kasuak 1. eta 5. hiztun-tipoak hartzen dituzte bete-betean eta 4. tipoa erdibana. Koherentziarik gabeko kasuak, ordea, 2. eta 3. tipokoak dira erabat, eta 4.ekoak erdibana. Ba al dago tipologia koherentziaren eta koherentzia ezaren arteko bereizketa azal lezakeen ezer? Baliteke.

Ezer baino lehenago, gogora ditzagun zeintzuk diren bost hiztun-tipo horiek:

- 1. tipoa: ama euskalduna izanik, lagun euskaldunekin euskaraz aritzen direnak.
- 2. tipoa: ama euskalduna izanik, lagun euskaldunekin gaztelaniaz aritzen direnak.
- 3. tipoa: ama erdalduna izanik, lagun euskaldunekin euskaraz aritzen direnak.
- 4. tipoa: ama erdalduna izanik eta gaitasunez euskaldunak izanik, lagun euskaldunekin erdaraz aritzen direnak.
- 5. tipoa: ama erdalduna izanik eta gaitasunez erdaldunak izanik, lagun euskaldunekin erdaraz aritzen direnak.

Lehenengo eta bosgarren tipoek kontraesan gutxiko kideak hartzen dituzte bere baitan. Lehenengo tipokoek euskaraz egiteko oso gaitasun ona dute, eta, gainera, finkatua dute euskaraz egiteko ohitura. Beraz, kontraesanik ez; garbi da zein duten hizkuntzazko jokaera. Gauza bera baina beste muturretik gertatzen da bosgarren tipokoekin. Haietako ez dute euskaraz egiteko gaitasunik, eta, beraz, gaztelaniaz baino ezin dute egin. Horretan ere ez dago hizkuntzazko jokaerari buruzko zalantzarik. Seguru asko, garbitasun horretatik dator datuen koherentzia.

Ez da, ordea, gauza bera gertatzen gainerako tipoekin. Erdibideko kategoriak dira, zalantzazkoak, kontraesanaz beterikoak. Bigarren kategoriakoek, esaterako, badute euskaraz egiteko gaitasuna, baina ez omen dute horretarako ohiturarik. Hala ere, ohiturarik ez izateak ez du esan nahi tarteka egingo ez dutenik –esaterako, egoerak hala behartzen dituenen—. Beraz, horretan guztian, zalantza eta aldaketa ugari dago. Halaber, hirugarren kategoriako kasuan ere, badirudi euskaraz egiteko joera badutela, baina hutsuneak dituzte gaitasunaren aldetik, gaztelaniaz adinako erraztasunik ez baitute euskaraz; ondorioz, hortik ere zalantza eta gorabehera ugari etor daitezke. Laugarren tipoa aurrekoaren antzekoa da, eta horien bereizgarrik handienetakoa da ez dutela euskaraz egiteko hain joera nabarmenik. Zalantza nagusi den lur hauetan, erraz erro egin dezake koherentzia ezak.

Seguru asko, kontraesanak oso agerikoak dira tarteko egoeran bizi direnentzat. Egin dezaketena, egiten dutena, egin nahi luketena eta besteek haietaz pentsatzea nahi luketena etengabeko talkan ari dira. Batzuetan, alde batera egingo dute edo haren itxura egingo, eta, beste batzuetan, beste aldera makurtuko dira. Ez da inondik inora baztertzekoa ikerketaren testuinguruak subjektuengan duen eragina. Zein asmo sumatu inkestataileengan, halako erantzunak eman. Horrelako eragina beti izaten dela ezin ukatu, baina, izatekotan, uste dugu jokaera zalantzakorra dutenengan eragin handiagoa duela egonkorra dutenengan baino.

Beraz, ondoretara hurbiltzeko garaia dugu, eta, garrantzitsuena bilduz, esango genuke iritziak koherente samarrak direla, bide bat erabiliaz zein beste bat hartuta ere, hizkuntzazko jokaera finkatuta dagoenean, nahiz euskaraz nahiz erdaraz finkatuta egon. Baina aldakor samarrak dira hizkuntzazko jokaera finkatuta ez dagoenean; euskarari dagokionez, behinik behin.

Gogora dezagun zein zen gure hasierako galdera edo kezka: alegia, ea zein neurritan islatzen datuek errealitatea. Bada, orain, erantzuteko moduan gara. Bai, datuek, seguru asko, errealitatea islatzen dute subjektuek hizkuntzazko jokaera finkatua dutenean. Baina ez, datuek ez dute garbi eta zehazki adierazten errealitatea subjektuak kili-kolo dabiltzanean euskarazko jokaerari dagokionez.

Baditugu, beraz, datuetan sinesteko motiboak, baina baita haien zehaztasunaz zalantza egitekoak ere. Guk uste dugu, gertakari pertsonalak eta sozialak neurtzen direnean, joera moduan ulertu behar direla eta ez puntu matematiko zehatzen gisa. Neurketek zenbaki bat ematen dutenean, zenbakia bera baino gehiago, haren inguruko tartea hartu behar da kontuan, horrexek adierazten baitu, hain zuzen ere, joera. Tarte hori laburtxeagoa izango da batzuetan, hizkuntzazko jokaera finkatua dutenen kasuan ikusi dugunez, baina zabaltxeagoa izango da beste batzuetan, nola izaten baita hizkuntzazko jokaera finkatua ez dutenen kasuan.

Aurreko irizpidea operazionalizatu egin behar da nolabait, taulen interpretazioak egiteko. Noiz aldatzen da joera bat? Noiz bereizten dira fenomeno bat eta bestea? Gure irizpideak puntuazio-tarteak hartzea eskatzen du eta ez puntuazio zehatzak. Baina zer-nolako puntuazio-tarteak? 6 puntukoak, 8koak, 20koak? Tarte txikiak ez ditugu gustuko, iritzien aldakortasuna kontuan harturik. Beraz, zenbateko tartea? Guk 15 puntuko tartea aukeratu dugu. Horren arabera, 46ko eta 52ko puntuazioak tarte berean leudeke, 6 puntuko aldea baizik ez dutenez gero, eta horrek esan nahiko luke joera edo fenomeno beraren atarian geundekeela. Era berean, 34ko eta 53ko puntuazioen arteko aldea 15 puntu baino gehiagokoa denez gero, seguru asko, bi fenomeno edo joera ezberdinen aurrean geundekeela adieraziko luke.

15 puntuko tartea aukeratu izanak ez du beste euskarririk ezpada intuizio bat operazionalizatzea. Intuizioa bera guztiz arrazoitua dago aurreko lerroetan. Zenbakia, ordea, arbitrario samarra da, eta, zalantzarik gabe, ikerketa berezi batzuk egin beharko lirateke haren egokitasuna justifikatzeko. Bien bitartean, izan dadila gure intuizioaren adierazle numeriko hutsa.

---

## 2. hausnarketa, ‘euskalduna’ kontzeptuaz

**Euskalduna kontzeptua hertsiki erabili beharko genuke, aditzera emateko “euskaraz oso ongi mintzatzen diren” pertsonak eta ez besterik.**

---

Honelako galdeketetan, hizkuntzazko gaitasunari buruz galdetzerakoan, honako eskala hau erabili ohi da:

Zer moduz hitz egiten duzu euskaraz?

- 1) Oso ongi
- 2) Nahiko ongi
- 3) Zertxobait
- 4) Hitz batzuk
- 5) Batere ez

Datuak interpretatzeko garaian, bada ohitura hedatu eta finkatu bat, “oso ongi” zein “nahiko ongi” hitz egiten dutenak euskalduntzat hartzekoa. Horiek horrela multzokatu eta hortik aurrera egingo diren irakurketan, “euskaldunek horrelako hizkuntzazko jokaera dute”, “euskaldunek halako jarrera dute”, “euskaldunek...” eta antzeko ondorioak entzungo eta irakurriko dira. Ez zaigu zuzena iruditzen horrelako multzokatze hori. Euskaldunen irudi lanbrotsu eta okerra dario horri, guk uste.

Euskalduna, gaitasunari hertsiki gagozkiola, euskaraz erraz, zailtasunik gabe, normaltasunez eta jario etengabea –alegia, ongi– hitz egiteko gaitasuna duena da eta ez besterik. Eskalako “oso ongi” maila da horixe.

Beste muturrean ditugu erdaldunak. Horiek ez dute euskaraz aritzeko inongo gaitasunik. Eskalako “batere ez” maila da hori, baina baita “hitz batzuk” maila ere, zeren horiek, hitz batzuk jakinda ere, ez baitute ideiak jario batean komunikatzeko gaitasunik.

Komeriak, beti bezala, tarteko mailak kokatzeko garaian hasten zaizkigu. Lur labainkorretan murgiltzen gara, eta ez da erraza ondo asmatzea. Hala ere, aurrera egin eta irizpide batzuk eman behar dira jakitera.

Hasteko, “zertxobait” maila dugu. Horiek, teorian, honelako hiztun-tipoa ekarri beharko ligukete gogora: zailtasun nabarmenak eta jario motel, gorabeheratsu eta ez oso zuzena izan arren, euskaraz ideiak adierazteko gauza dena. Zalantzak ditugu ea “zertxobait” hitzak hori guztia aditzera ematen ote duen, baina tira. Egia da horiek badutela nolabaiteko gaitasuna euskaraz, eta, hortaz, ezin daitezkeela hertsiki erdarazko

elebakartzat har, baina hain dira horien gertukoak hizkuntzazko jokaeran bezala hizkuntzarekiko sentimenduan ere, ez baikenuke inongo arazorik "erdalduna" kategorian sailkatzeko.

"Nahiko ongi" maila dugu bigarrena tartekoetan. Horiek gauza dira euskaraz komunikatzeko, nahiz eta ez guztiz erraz eta ez guztiz zuzen. Erdararen makulua behar dute oraindik, nabarmen eta neurritz haratago. Kasu batzuetan, ez dute inoiz lortu euskaraz ongi mintzatzeko gaitasuna, eta prozesua burutuezinik gelditu dira. Baina, beste batzuetan, inoiz euskaraz ongi hitz egin arren, gutxi erabiltzearen ondorioz eta urteen higadura dela medio, mintzatzeko gaitasuna errotik kamustutako lagunak dira. Horiek euskalduntzat hartu behar ote ditugu?

Gure ustez, egun ez dira euskaldunak, nahiz eta batzuk iraganean izan ziren eta besteak etorkizun batean iristeko zorian egon. Tarte txikia, bai, baina oso esanguratsua. Ikusi dugu testuan nola euskaraz ongi mintzatzen direnen eta nahiko ongi mintzatzen direnen profil linguistikoak nabarmenki desberdinak diren, hizkuntzazko jokaeran bezala hizkuntzarenganako sentimenduan ere. Horregatik diogu, berriro ere, bi maila horiek ezin direla bakarrean bildu. Euskalduna da euskaraz ongi mintzatzen dena. Euskaraz nahiko ongi mintzatzen dena, ezer izatekotan, nagusiki erdalduna da, hori baita ongi dakien hizkuntza. Izatez, erdal elebiduna da.

Datuok aztertuz gero, hiru kategoriatan multzokatuko genituzke eskalako mailak, gure azterketaren helburu nagusia hizkuntzazko jokaera denean. Hona hemen:

- 1) Euskaldunak (euskaraz "oso ongi" mintzatzen direnak; hots, euskarazko elebakarrak, euskal elebidunak eta elebidun orekatuak).
- 2) Tarteko euskaldunak (euskaraz "nahiko ongi" mintzatzen direnak; hots, erdal elebidunak).
- 3) Erdaldunak (euskaraz "zertxobait" edo "hitz batzuk" dakizkitenak bezala batere ez dakitenak ere; hots, erdarazko elebakarrak eta erdal elebidunen multzo bat).

---

### **3. hausnarketa, ‘ama-hizkuntza’ kontzeptuaz**

**Ama-hizkuntza kontzeptua ere argi erabili beharko genuke, gogoan izateko “euskara amaren ahotik eta jaiotzetik bertatik jaso duten” pertsonak eta ez besterik. Beraz, hizkuntza zein adinetan jaso den bezain garrantzitsua da, edo agian are gehiago, amaren hizkuntza.**

---

Bada beste ohitura bat horrelakoetan, zeinen arabera ama-hizkuntzat hartzen baita umeak 0 eta 3 urte bitarteko adinean jaso duen edozein hizkuntza. Horren arabera, umeak adin goiztiar horietan gaztelania eta euskara jaso baditu, orduan orobat ondorioztatu beharko genuke biak direla haren ama-hizkuntzak, eta halaxe egiten da usu samar. Gu ezin gara irizpide edo praktika horrekin bat etorri.

Guk, lan honetan argi samar agertu dugun bezala, oso fenomeno ezberdinak antzematen ditugu umeek ama euskalduna izan ala ez. Batzuek eta besteek euskara 0 eta 3 urte bitarteko adinarekin jaso zuten, bai, baina haien gaitasuna, jokaera eta sentimendua ez dira inondik inora antzekoak. Gaitasunaren atalean, esan bezala, bi fenomeno arras ezberdinak multzo bakarrean bilduz gero, irudi lanbrotsu eta oker samarra jasotzea baino ezin dugu espero. Biak bereiztearen alde agertzen gara gu.

Ama-hizkuntza kontzeptuak berak adierazten du bere esanahia: hots, amak umeari jaiotzetik bertatik transmititzen dion hizkuntza. Zalantzarik gabe, horixe izaten da lehen hizkuntza umearentzat. Litekeena da, ama-hizkuntzaz gain, beste helduengandik (aitarengandik, aitona-amonengandik, haurtzaindegiko langileengandik eta abarregandik) beste hizkuntzaren bat edo batzuk jasotzea adin goiztiar horietan, eta, era horretan, haurra kontestu plurilingual batean murgildurik egotea. Baina, hona hemen gakoa: plurilingualismo hori orekatua izango ote da haurrak 3 urte betetzen dituenean?

Guk ez dugu datu kontrastaturik, ez eta ikerlanen berririk ere, orain egingo duguna baieztatzeko, baina geure senak agindutakoa adieraziko dugu, eta da amaren hizkuntza gailenduko zaiola, salbuespenak salbuespen, nabarmen gainera, beste edozein helduren hizkuntzari, heldua etxekoa izan ala etxetik kanpokoa izan.

Psikologiak zer esana izango luke hemen, argitzeko zenbateko indarra duen amaren eta umearen arteko erlazioak, errotiko afektibitateari lotua. Indar sekulakoa, beste helduek dutenarekin alderatuta parekorik ez duena. Soziologiak ere badu hemen zer esanik. Emakume askok eta askok kalerako bidea hartu du. Jada ez da hain erabatekoa, ez behinik behin lehen bezainbestekoa, emakumeek etxean duten presentzia kuantitatiboa.

Emakumeek ez dute orain, eta gutxiago seguru asko aurrerantzean, horrenbesteko denbora ematen ume txikiak hezten. Aitona-amonek, aitek eta hezitzaile profesionalek ere hartu ohi dute orain lehen ia soilik amaren esku zegoen egitekoa. Ahulduko ote dute aldaketa soziologiko horiek guztiek amaren eta umearen arteko indar afektibo ahaltua?

Aldaketak, etorri, etorriko dira, ez dugu horretaz dudarik egiten. Baina iruditzen zaigu amaren eragina, zertxobait motelduta ere, beti gailenduko zaiola beste helduen eraginari. Edo, bestela esanda, amaren hizkuntzazko eragina afektibitatean dago errota.

Hortaz, amaren eta umearen arteko erlazio afektiboaren indarrak dirauen bitartean, hizkuntzazko eraginak ere bere horretan iraungo du.

## 4. hausnarketa, ‘lagunarte euskalduna’ kontzeptuaz

Lagunartea kategoria behar bezala aztertzeke, ez da nahikoa euskaldunen dentsitateaz galdetzea, zeren, euskaldun horien gaitasunaren kalitatearen berri jakin gabe, ezin baita inongo azterketa sendorik egin.

Lagunartea, etxearekin eta eskolarekin batera, gizarteratzeko eremurik garrantzitsuenetakoa da umetan eta, batez ere, gaztetan. Baina, etxearekin eta eskolarekin ez bezala, lagunartea ezin izan dugu behar bezala aztertu. Informazio laburra jaso dugu galdeketa eremu horri buruz. Batetik, galdetu zitzaizen ea lagunartean zenbatek zekien euskaraz: *Zenbatek dakite euskaraz zure kuadrillan?*

- 1) Denek
- 2) Gehienek
- 3) Erdiek edo
- 4) Gutxieneke
- 5) Inork ez

Bestetik, galdetu genien ea nola egiten zuten –zein hizkuntzatan, alegia– lagun euskaldunekin eta lagun erdaldunekin. Erantzunak bosteko eskalan eman zituzten:

- 1) Beti euskaraz
- 2) Euskaraz erdaraz baino gehiago
- 3) Bietan berdin
- 4) Erdaraz euskaraz baino gehiago
- 5) Beti erdaraz

Galdera horiek euskalduna kontzeptua erabiltzen zuten behin eta berriro, baina zentzu zabalean eta ez hertsian. Horrela, nola interpretatu behar dugu, esaterako, “lagun guztiak euskaldunak direla” erantzuten dutenean? Horiek guztiak euskaraz “oso ongi” mintzatzen direnetakoak izango balira, benetan euskarazko lagunarte baten aurrean izango ginatke. Baina, eta denak tarteko euskaldunak –hots, “nahiko ongi” mintzatzen direnak– balira, orduan zer? Euskarazko lagunartetzat hartzen ahal genituzke? Badakigu –ez dugu berriro goitik behera errepikatuko– gaitasun batekoek eta bestekoek ez dutela berdin jokatzeko harremanetan.

Era berean, bigarren galderan, lagun euskaldunei buruz galdetzen zaie, baina zehaztu gabe zein den haren hizkuntzazko gaitasuna. Beraz, oso litekeena da multzo horretan “oso ongi” mintzatzen direnak bezala “nahiko ongi” egiten dutenak ere sartzea. Baina, orduan, solaskidearengandik oso irudi lausoa jasotzen ariko ginatke; hain lausoa nola ohartarazten baikenuen galdeketako subjektuez hitz egitean.

Hizkuntzazko jokaera ulertu ahal izateko, ez da aski solaskide bakar baten hizkuntzazko izariak ezagutzea, baizik eta hizketan ari diren solaskide guztienak. Horrela, bada, “oso ongi” mintzatzen diren bi lagun elkartzen badira, aukera handia dagoke, datuen argitan, euskara erabil dezaten. Era berean, bata “oso ongi” mintzatzen bada eta bestea “nahiko ongi”, orduan, seguru asko, euskararen erabilera nabarmen jaitsiko da. Hortaz, ez litzateke aski izango galdetzea ea solaskidea euskalduna den ala ez, baizik eta hark nolako gaitasun linguistikoa duen ere jakin beharko genuke.

Aurrekoa kontuan harturik, galderak eta hobetu egin beharko lirateke, informazio zehatzagoa jaso ahal izateko. Nik era honetara egingo nituzke:

*Aukera itzazu zeure kuadrillako bost lagun; zurekin tratu gehien dutenak, hain zuzen ere. Eta, orain, esan zer moduz dakiten euskaraz, banan-banan harturik.*

Identifikazioko letrak	Oso ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Batere ez	EE

*Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu lagun horiekin? Esan banan-banan eta lehengo ordena berean.*

Identifikazioko letrak	Beti euskaraz	Euskaraz erdaraz baino gehiago	Bietan berdin	Erdaraz euskaraz baino gehiago	Beti erdaraz	EE

Horrela eginez gero, ziur gaude informazio zehatzagoa jasoko genukeela. Hala ere, hori beste batean egin beharko da, zeren honenak egin baitu eta ez baitago besterik.